

## 'Cocidito madrileño'

1080 lagunek ikusi dute asteburuan

KULTURA, 22-23



## Bergarak baino ez du irabazi preferentzen

UDAk berdindu egin zuen eta Mondrak eta Aloñak, berriz, galdu

KIROLA, 14

## Koro Saenz

Organo zikloa itxi zuen zapatuan

KULTURA, 26



# ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2005eko otsailaren 7a • 1. urtea • 44. zenbakia • 0,90 euro

## Mozorroz aldatuta ibili da debagoiendar asko egunotan

*Aratuste-martitzena ospatuko dute Arrasaten eta herrietako ikastetxeetan*

### ARATUSTE-DOMEKA

Aretxabaletan koadrila mordo atera zen kalera. Mozorro lehiaketako epaimahaia zinez lan zaila izan zuen

### BAZKARI-AFARIAK

Eskoriatzan Aratuste-bazkaria eta Gatzagan afaria egin ziren

### OHITUREI EUTSIZ

Antzuolako dantzariak sorgin dantza egin zuten Aratuste-domekan. Gizonak, berriz ere, andre

Zapatu gauean bergararrak mozorrotu ziren mozorro lehiaketarako; domekan, berriz, Aretxabaletari tokatu zitzaion mozorroz aldatzea. Etzi, berriz, Arrasaten dute hitzordua Aratuste-martitzenarekin mozorro zaleek. Ikastetxeetan ere ospatuko da mozorrotzeko azkeneko eguna. **2-5**



Aretxabaletako Herri Kirolak koadrilak lehiaketako bigarren saria irabazi zuen Aratuste-domekan.

## Etxerateg IV. Batzar Nazionala egin du

Domeka goizean 420 lagun elkartu ziren Arrasateko Amaia antzokian Etxerateg burutu zuen Batzar Nazionalan. Preso politikoaren Euskal Herriratzearen garrantzia izan zuten aztergai, eta baita Estatu Espainolak euren senideekiko ezartzen duen errepresioa ere. Euskal presoaren egunotako borrokaldia ere hizpide izan zen batzarrean. Borroka hori nola barneratu aztertu zuen Etxerateg.

Zapatuan, berriz, 2.500 lagun elkartu ziren Ion Agirre preso aramaioarraren Euskal Herriratzea eskatzeko. Deitzaileak pozik dira baina Ionek behar duen ebakuntza lortu arte ez dute la amore emango diote. **7**

## Zubillagako hiltegiaren gaineko jardunaldiak bihar eta etzi Eskoriatzan **9**

## Juanito Oiarzabal Oñatin

*Iñurrategirekin Antartikara joan nahi du **21***



## Koltsulta mugatuak Iguan

*Osakidetzan sartzeko prozesua hasita, ez dute emango larrialdi zerbitzurik **8***



*Bazaude ala ez zaude?*



Maalako errabala 5 • ARRASATE  
Kale barria 18 • OÑATI



# GEUREAN

- Urdelardeo, Santa Ageda eta San Blas jaiak ospatu dituzte ibarreko hainbat herritan. | 6
- Goienak hitzarmena sinatu du Euskalmet meteorologia zentroarekin | 7

San Martin  
egoitzakoek  
manifestazioa deitu  
dute biharko,  
Oñatin | 9

ARATUSTEAK IRUDITAN

## Olinpiadak, piratak, Lantz... Denak izan ditugu Aratusteetan

*Egubakoitzean Bergarako  
Orkestra Sinfonikoaren  
'Hook' piratek hasi zuten jaiak*

*Zapatuan Eskoriatzan  
Aratuste-bazkaria eta  
Gatzagan afaria egin zuten*

*Domekan Aretxabaletak hartu  
zuen lekukoa. Mozorro asko  
izan ziren lehiaketarako*



Antzuolarrek sorgin dantza egin zuten domekan. Hartza ere atera zuten, zirko-hezitzaileak lagunduta.



Bergarako neskatok animatzaile bikainak izan zituzten Aratuste-zapatuan.



Aramaion txikienak animatu ziren mozorro lehiaketan parte hartzera.



Bergarako Piratek *Hook* ikuskizuna egin zuten pilotalekuan. Elkartasunezko emanaldia izan zen.



ARATUSTEAK IRUDITAN



Elgetako Erregeak Espaloian izan ziren egubakoitzean.



Lantzeko inauteriak Oñatin ikusteko aukera izan genuen egubakoitz arratsaldean.



Eskoriatzako pilotalekuan berogailuak jarri zituzten Aratuste-bazkarian.



Gatzagan afaria egin zuten eta txikienek jolas egiteko aprobetxatu zuten.



Kaka-euliak ibili ziren Elgetako Espaloian Aratuste-barikuan. Hura zen hura usaina!

### Orkestrako pirata solidarioak aritu ziren Bergaran Asiaren alde dirua batzen

Begarako orkestrak egindako *Hook* ikuskizunaz gainera, moztarro lehiaketak ere arrakasta izan zuen. Irabazleak hauek izan ziren: Bakarka, Danel Soto hippia eta Mainer Bayon harriketarra; binaka, Elene Etxaniz eta Amaia Torcuato pailazoak, Amaia Osa eta Lexeia Larrañaga 'Torturak dirau' eta Aztiak; taldeka, Valen Moñux eta lagun piratak, Ion Unamuno eta lagunak Cirque du Gaztai eta Izaskun Igartua eta lagunak La Tuna de Amoroto.

### Aratuste-zapatuan moztorro gutxi egon arren, txokolate zale asko ibili zen

Nagusien lehiaketara talde bakarra animatu zen lehiatzaera eta eurentzako izan zen 90 euroko saria: Aramaioko Piratak. Haurren lehenengo saria, Tartalo eta bere ardiak taldeak lortu zuen eta bigarren Sukaldaritz taldea izan zen. Orijinaltasunaren sariak Aramaioko Kurtzegain ehiztari taldeak eta Aramaioko Animatzaileak taldeak irabazi zituzten. Txokolatea ere egon zen hotzari aurre egiteko eta den-dena amaitu zen.

### Aratuste-martitzenean hainbat ekitaldi egingo dira gure ibarrean

Arrasate Musikaleko Banda nagusiak eta balet taldeak Zirkoa aterako dute kalera Aratuste-martitzenean, 19:00etatik aurrera. Bergarako Musika Eskolako txarangaren kalejira 16:30etan hasiko da eta 18:30ean, Erraldoi, Kiliki eta Buruhandien kalejira aterako da Elgoibarko dultzaina jotzaileek lagunduta. 19:30etatik aurrera, Disko Top-Festa San Martin plazan. Oñatiko Errekalde herri eskolako umeek jolaslekuan daukate hitzordua 11:00etan.



## ARATUSTEAK IRUDITAN



Aretxabaletako Faraioia herria agurtzera atera zen bere gorteko emakumeekin. Lehiaketa irabazi zuten.



Loreen indarra banatzen aritu zenik ere egon zen Aratuste-domekan.



Kaleak girotzen aritu ziren Aretxabaletako tunanteak.



Masai tribukoak ere izan ziren bisitan. Safaria egiten aritu ziren Land-Roverrekoak zaintzen.

## • MOZORROA AUKERATZEA ETA EGITEA LAN HANDIA IZATEN DA?



IBAI, MIREN, EÑAUT, JON, MARTIN, GORKA, IURRE, TXONI, AINHOA, UNAI, LEIRE ETA GARAZI | ARETXABALETA

**"Bi egunetan Santa Ageda abesten jardun ostean, gaur Txino dantza egitera"**

Mozorro kalejira hasi aurretik harrapatu genituen Aretxabaletako kintoak. Txino dantza egiteko jantziak aldean zituzten hamabi lagunek. "Bi egunetan Santa Ageda abesten atera gara eta gaur Txino dantza egitea tokatzen zaigu. Gero, baina, bazkaria daukagu eta parranda egingo dugu" aitortu ziguten hamabi lagunek.



NERE, ENERITZ, ADRIAN, NEREA, AMAIA, AITZIBER, ALAZNE, LOREA, MAIALEN ETA IRIANA | ARETXABALETA

**"Aretxabaletarra izanik, derrigorrezkoa da gaurko egunean mozorrotzea"**

Taberna barruan harrapatu genituen zingarak. "Denon artean erabakitzen dugu mozorroa. Aurten nahiko erraza izan da erabakia hartzea; ez dugu asko eztabaidatu", esan ziguten barrea galdu barik. Bazkaritarako hitzordua ere bazuten; "guk prestatuko dugu lagun baten etxean" azaldu ziguten; hori bai, "kalejiran ez gara aterako" ere esan ziguten.



ASIER, HAIZEA, OIHANA ETA KRISTINA | ESKORATZA

**"Umeekin aurten lehenengoz jantzi gara Aretxabaletan"**

Kristina sortzez Aretxabaletakoa izanik lagunekin ere mozorrotu izan da Aratuste-domekan, baina "umeekin lehenengo aldia da. Orain Eskoriatzan bizi gara eta umeek 3 urte bakarrik dituzte" esan zigun familia *elizkoi-ye yeak*.



ARATUSTEAK IRUDITAN



UDAKoek 2012ko Olinpiada herrian egitea eskatu zuten.



Rozioa ere egin zuten domekan, fino eta pernila lagun zituztela.

**Aretxabaleta Tolosa txikia izan zen berriz ere Aratuste-domekan**

Eguerdian jendez beterik zeuden Aretxabaletako kale nagusiak; koadrilen kalejiran aterako zirenak Errekabarrenen elkartu ziren; Marijaiak ikusi genituen, baita ijitoen kanpamendua eta UDAkoen Olinpiar Jokoak ere. Geroago agertu ziren hiptiak eta gladiator Klubekoak; kalean abesten, berriz, andaluziar errozieroak, tunakoak, mexikarrak... Hura zen hura giroa. Mozorro lehiaketan aukeraketa zaila izan zuten epaimahaikideek. Hauek izan ziren irabazleak: 16 urtetik gorakoak, Faraioia, Olinpiar Jokoak, Tuna, Ijitoak eta Ahuntzarenak; 16 urtetik beherakoak, SWAT, Herriko kiro-lak, La Koadrilla, Sister Act eta Japoniarrak. Akzesit bi ere eman zituzten: Masaiei eta Gladiatorri. Loramendi euskara elkarteak tabernei zuzendutako mozorro lehiaketa antolatu zuen. Bost tabernekin eman zuten izena, euskal mitologia gaitzat hartuta. Urbaltz tabernak irabazi zuen taberen lehiaketa.



Gladiator kluba ere atera zen; Russel Crow preso zeramatzen erromatarrek, baita garagardo kaña eta kalimotxo botilak ere. Zenturioiek bidea egin zieten.



DEIANE, ARANTXA, KRISTINA, JAIONE ETA UXUE | ARETXABALETA

**“Aurten jantzia erosi egin dugu. Aukera erraza egin dugu, burua geheigi nekatu gabe”**

Mozorroa aukeratzeko orduan arazorik ez dutela izaten azaldu ziguten Aretxabaletako pirata koadrila honek. “Aurten ere erraz egin dugu; dendara joan eta gustuko genuena erosi genuen”. Hala ere, ez dute beti horrela egiten: “orain dela 3 bat urte Adams Familiaren jantzi ginen eta horrek lan handia eman zigun”. Kabalgatan ez ziren atera, baina kalean ibili ziren.



WARHOL, KETCHUP, PITXITXI, ETOMATE ETA UXUE | ARETXABALETA

**“Elastikoa kendu dutela eta, guk errekueratu egin dugu”**

Athletic taldeak badaki UEFArako zen baina baztertu zuten elastikoa noiz erabili. Aretxabaletako mozorro egunean arrakasta izan zuen. Ogasuna taldeak jantzi zuen Aratuste-domekan eta lehoi ileekin apainduta ibili zuten kalean.



MAIDER, OIHANE, IRAGARTZE, MAIDER, IDURRE, NORA ETA NEREA | ARETXABALETA

**“Denbora barik ibili gara mozorroa egiteko eta erosi egin dugu”**

Neska koadrila honek aitortu zigunez, ez zuten denborarik izan mozorroa prestatzeko eta “denbora barik, erostea erabaki genuen”. Domekan jatetxe batera bazkaltzera joateko asmoa zuten eta horretarako ere, fin ibili behar izaten dela esan ziguten: “3 bat aste lehenago eskatzea komeni izaten da lekua, bestela barik geratzeko arriskua daukazu”.



## Ezker Batuak eta EAk ezetz esan diote Europar Itunari

*EAk mitina egin zuen barikuan Arrasaten eta Ezker Batuak triptikoak banatuko ditu egunotan*

Larraitz Zeberio

Eusko Alkartasuna (EA) eta Ezker Batua-Berdeak (EB-Berdeak) alderdiek ezezkoaren aldeko botoa eskatu dute otsailaren 20ko erreferendumerako.

Unai Ziarreta eta Mikel Irujok azaldu zuten EAren ezezkoa barikuan Arrasaten. Europar Itunak gabezia handiak dituela salatu zuten. Autodeterminazio eskubidea, zerbitzu sozialak, lan eskubideak eta aberastasunaren banaketa aipatu zituzten esaterako.

Debagoieneko EB-Berdeak alderdiko zinegotziek, bestalde, Europar Ituna onartezina dela esan zuten prentsa agerraldian. Elkarturik, Aretxabaleta, Eskoriatza, Arrasate eta Oñatiko zinegotzi Jaime Mugica, Juan Luis Merino, Ander Rodriguez eta Carmelo Perez de Almarazek Itunak Europa neoliberal eta poliziala ezartzen duela salatu zuten.

*Europar konstituzio hau ez da gurea* dio EB-Berdeak alderdian kanpainak. "Itun blindatua da hau", gaineratu du Ander Rodriguezek. "Lehiakortasunaren, kapitalaren eta militarismoaren Europa da. Ez dute inor kontsultatu ituna idazterakoan. Orain aspaldian galdutako legitimitatearen bila dabilta erreferendum hau antolatuz baina beranduegi da".

Otsailaren 14rako hitzaldia antolatu dute Arrasateko Mon-



EB-Berdeak alderdiko zinegotziek ezezkoaren botoa eskatu dute.



Unai Ziarreta, EAren mitinean.

terron kultura etxean iluntzeko 19:00etan. Bertan Oscar Matutes eta Antton Carrera izango dira.

### BESTELAKO DEIALDIAK DATOZEN EGUNOTAN

Gaurko, astelehena, Europar Itunaren inguruko hiru hitzordu daude deituta Debagoienean. Arrasaten, arratsaldeko 18:30ean Zutik-ek ezezkoaren alde egunotan burutuko duen kanpainaren berri emango du Jai Zale elkarte-an. 19:00etan, *La Europa de quien* liburua aurkeztuko dute Monterron kultura etxean egileek.

Aretxabaletan, azkenik, iluntzeko 19:00etan, ezezkoaren aldeko kanpainaren berri emango du udaletxe zaharrea horren harira sortutako taldeak.

### • OSASUN ARLOA EUSKALDUNTZEKO KANPAINA

#### ANTZUOLAKO EHE-K SINADURA GEHIAGO BATU DITU ASTEBURUAN

Antzuolako Euskal Herrian Euskaraz taldeak osasun zerbitzuak euskalduntzeko sinadura batzea egin zuen egubakoitzean. Pilotaleku inguruan jarri zuten mahaia eta duela bi aste egin zuten bezala, mediku jantzita egon ziren.

Antzuolako EHEko kideek esandakoaren arabera, aurreantzean ere halako mahaia jarriko dituzte, beti ere osasun arloa euskalduntzeko helburua oinarri hartuta. Ekimen beraren barruan, herriko taberna eta dendetan sinadura orriak banatzen hasi direla ere gehitu zuten taldeko kideek.



EHE

## Urdelardero, San Blas eta Santa Ageda, guztia asteburu bakarrean

*Urdelardero eta Santa Ageda egun bakarreko ospakizuna izan dira; San Blas, berriz, asteburu osoko jaia izan da*

A.G.

Eskoriatzan umeek Urdelardero eguna ospatu zuten egubakoitzean. Eskolara baserritar jantzita joan ziren, eta trikitiaren laguntzarekin txistorra jan eta dantza egin zuten pilotalekuan.

Santa Ageda bezperan, berriz, hainbat talde ikusi ahal izan genituen makilekin lurra jotzen eta eskean. San Blasei dagokienez, pixka bat luzeagoak izan dira eta horren adibide ditugu Arrasateko Gesalibar eta Bergarako Murinondo auzotetan izan dituzten ekitaldiak.



ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

**URDELARDEKO.** Eskoriatzako txikitxoek Urdelardero eguna ospatu zuten egubakoitzean. Eguraldia oso egokia ez zenez, pilotalekuan batu ziren guztiak baserritar jantzita. Hori bai, txistorra ez zitzaizen falta izan.



AITOR LIZARRALDE

**SAN BLAS.** Bergarako Murinondo auzoan, Arrasateko Gesalibarren eta Elgetan ospatu dituzte San Blasak egunotan. Denetarik ekitaldiak egon dira: bertsolariak, auzo afariak (irudian Bergarako), mezak eta opil bedeinkatzeak.



AITOR LIZARRALDE

**SANTA AGEDA.** Ume eta nagusi. Ibarreko herri guztietan atera ziren taldeak kantuan eta eskean egubakoitzean, Santa Ageda bezpera. Aipatzekoak dira, bestalde, Aretxabaletako eta Eskoriatzako kintoek asteburuan egindako dantza saioak.





AITOR LIZARRALDE

Kanpainari hasiera emateko, pintxoak eta edatekoa banatu zuten Laixaneko kideek zapatuan.

## Zapatuan hasi zuen Laixan elkarteak bazkide kanpaina

*Martxoaren 18ra arte, astebururo, bazkide egiteko mahaia jarriko dute plazan. Hiru kultura ekitaldi ere antolatu dituzte*

Monika Belastegi

Zapatu arratsaldean hasi zuen. Herriko plazan mahaia jarri eta giro ezin hobean jardun zuten txorizo pintxo eta edari eta guzti kanpainari hasiera ematen. Domekan ere hantxe egon ziren eguerdian eta datozen asteburuetan ere gauza bera egingo dute, martxoaren 18ra bitartean, hain justu ere. Zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara egongo dira; domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00eta-

ra. Bietan hala bietan, herriko plazan.

Gaur egun 446 bazkide ditu elkarteak eta euren helburua da herritarrek kontzientziazteaz elkarteko bazkide izatearen garrantziaz. Horretarako, kanpaina barrena jarriko dituzten mahaioetan, elkartearen gaineko informazioa banatuko dute eta euren zereginaren berri ere eman- go dute.

Mahaioak jartzeaz gain, martxorako hiru kultura ekitaldi ere antolatu dituzte.

### Egitaraua

#### MARTXOAK 3

- **Film laburren emanaldia:** Kultura etxean, 20:00etan. Kimuak etxeko bost film izango dira. Koldo Almandoz zuzendaria han egongo da.

#### MARTXOAK 4

- **Bertso trama:** Santa Ana aretoan, 22:30etan. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano.

#### MARTXOAK 18

- **Txuma Murugarren:** Zehazteke dago.

• EUSKALMET METEOROLOGI ZENTROAK ETA GOIENAK HITZARMENA SINATU DUTE

### LANKIDETZAN JARDUTEKO AKORDIOA SINATU DUTE

Aurrerantzean lankidetzan jarduteko akordioa sinatu berri dute Euskalmetek eta Goiena Komunikazio Zerbitzuek. Horren arabera meteorologia agentziak eguraldiaren iragarpena egingo du egunero Goiena Telebistan. Horrez gain, meteorologiaren gaineko terminologia hobeto ezagutzeko aukera ere emango du *Goienkarian*. Antizikloiak, fronteak, turbulentiak... horien guztien gaineko erreportajeak eskainiko ditu egubakoitzero. Gerora, asmoa du, terminologia hori eskoletako ikasleei ikas-material moduan eskaintzeko.



AMAGOIA LASAGABASTER

## Euskal presoen egoera salatzeke ekitaldi ugari egin dira asteburuan

*Ion Agirre preso aramaioarraren Euskal Herriratzea eskatzeko 2.500 lagun elkartu ziren Arrasateko manifestazioan*

Larraitz Zeberio

Zapatu iluntzean 2500 lagun elkartu ziren Ion Agirre herri ekimenak Arrasaten deituriko manifestazioan.

Senide eta lagunekin batera alderdi politiko abertzale guztiek bat egin zuten deialdi honekin. *Larri dauelako Ion Euskal Herrira* leloaren atzean batu ziren Batasuna, EA, EAJ, Aralar, Herri Anitza, Ezker Batua, Zutik, ELA, LAB, ESK, Stee-Eilas, CC. OO., Askatasuna, Etxerat eta Segi.

Preso aramaioarra Malagako espetxean dute preso eta osasun arazo larriak ditu. Osatzeko Euskal Herriratzea eskatu zuten manifestariak. "Pozik gaude jende asko etorri delako", azaldu du Ion Agirre herri ekimeneko partaide Eneko Letonak. "Ezin

gara ordea honetan gelditu, Ion oso egoera larrian dagoelako. Ioni ebakuntza egin arte ez dugu amore emango".

Ion Agirre herri ekimeneko kideak gaur, astelehena, dira berriz elkartzeokoak eta Madril-dik erantzunik jaso ezean, protestaldiak nola bideratu aztertu-ko dute bilera horretan.

### ETXERATEN BATZARRA

Etxerateg domeka goizean egin zuen Arrasateko Amaia Antzokian laugarren batzar nazionala. 420 senide elkartu ziren nagusiki euskal preso politikoen egungo egoera hizpide izan zen batzarrean. Presoak burutzen ari diren protestaldiak izan dituzte aztergai. Euskal gizarteak preso- en egoeraz jabetzen hasi dela uste dute senideek eta batzarrean oso gogoan izan dituzte hildako Oihane Errazkin eta Kepa Miner presoek eta errepidean zendutako Leo Esteban eta Karmele Solaguren senitartekoak.

### EKINTZA GEHIAGO

Euskal presoak burutzen ari diren itxialdiekin bat egiteko protesta ekitaldi ugari egin da asteburuan Debagoienean.

Egungo iluntzean, Askatasunak deituta 30 bat pertsonako giza katea egin zen Bergaran. Herriko plazan egin zuten protesta ekitaldia bertaratutakoek. Leku berean elkartu ziren Elgeta, Antzuola eta Bergarako LAB sindikatuko delegatuak. Hogei pertsona bildu ziren eta udal- txeko bilkura aretoan pasa zuten gaua preso- en itxialdiekin bat egiteko. Arrasateko Harrese aretoan, berriz, Leintz bailarako delegatuak bildu ziren, guztira 15 lagun. LABek ertzaintzaren jarrera salatu du Bergaran miaketak egin zituelako.

Aretxabaletan, berriz, inauteri domeka eguerdian preso- en aldeko aldarrikapena egin zen Durana kalean.

### Antolatzaileak pozik agerraldian bildutako jende andanarekin

### Etxerateg batzar nazionala egin zuen domekan Arrasaten



AITOR LIZARRALDE

Jende andana bildu zen Arrasaten Ionon Euskal Herriratzea eskatzeko.



LAN ARAZOAK | IGUALAKO LANGILEAK EZ DAUDE ADOS OSAKIDETZAN IZANGO DITUZTEN LAN BALDINTZEKIN

# Gaurtik itxita daude Bergara eta Arrasateko Iguala osasun etxeak

*Enplegua erregulatzeko espedientea ireki dietela salatu dute Igualako 9 langileek*

Marijo Deogracias

Igualako medikuak Osakidetza-  
ren sarean sartuko direla eta, he-  
rri bietako osasun etxeak itxita  
daude gaurtik aurrera. Larrial-  
diatarako zerbitzurik ez dute  
emango eta, kontsulta orduetatik  
kanpo, Arrasateko ospitalera jo  
beharko da (edo 943 46 12 11ra dei-  
tu). Hortaz, Iguala zentro etxeek  
bakar-bakarrik pediatria zerbi-  
tzuak hartuko dituzte. Gainerako  
kontsultetarako Osakidetza-  
ren anbulatorioan txanda eskatu  
beharko da: 943 03 52 50. Hala ere,  
Igualan aurrez emandako txan-  
darekin gaixok hartuko dituzte;  
horretarako 943 71 26 91 zenbaki-  
ra deitu beharko da.

## MEDIKUAK HASERRE

Erabaki honekin mutualistez  
gain, osasun etxeetako langileek  
-9 guztira- ere jasango dituzte  
itxieraren ondorioak. Osakide-  
tzara pasatzeko prozesuan, antzi-  
natasuna galdu egingo dute Arra-  
sate eta Bergarako langileek eta  
bitarteko mediku legez hasiko



Larrialdi kasuetan Debagoieneko Eskualde Ospitalera joan beharko dira mutualistak.

dira Arrasateko ospitalean eta  
Oñatiko eta Bergarako anbulato-  
rioetan. Igualako langileek sala-  
tu egin dute jasoko duten kalte-  
ordaina legean jasotzen den  
gutxienekoa izango dela (mediku  
pribatuen kasuan 12 hilabete  
gehienez) eta, bitarteko mediku  
izanik, lan eskaintza publikoa  
irabazteko inolako aukera barik  
geratuko direla. Igualako langi-  
le taldeak salatu duenez, "Arra-  
sateko zentroan ari diren erizai-

nak eta administrariak Fagorre-  
ko katean sartzeko aukera izan-  
go dute, baina eurek ere, medi-  
kuek legez, antzinasuna gal-  
duko dute".

Igualako mediku Eugenio Itu-  
rriotzek Goienari azaldu dionez,  
"langileok ez daukagu ezer sina-  
tuta Osakidetzaekin. Gu Liga de  
Asistencia delako horren langi-  
leak gara eta enplegua erre-  
gulatzeko espedientea irekitzeko  
prozesua hasi du gure enpresak.

Eskatzen duguna da MCCk eta  
Lagun Arok parte hartu dezate-  
la gure lanpostuen etorkizunean".  
Joan zen eguaztenean Fagorreko  
Kontseilu Sozialari gutuna aur-  
keztu zioten Igualako langileek.

## KONTSEILU SOZIALAREN ESKARIA

Igualako langileek diotenez, "gure  
enpresak ez die mutualistei gure  
egoeraren berri eman. Gure ustez,  
Kontseilu Sozialek zeresana dute

honen guztiaren aurrean eta gure  
alde egiteko eskatu diegu". Gaur  
bertan, otsailaren 2an izandako  
batzar informatzailearen ondotik,  
Fagorreko kontseilu orokorrak  
batzarra izango du medikuen ego-  
era konpondu dadin eskaria egite-  
ko. Joseba Ugalde Kontseilu So-  
zialeko kideak ASTELEHENE-  
KO GOIENKARIARI azaldu  
dionez, "medikuak Kooperatiban  
integratzeko eskaria egingo dugu;  
aztertu dezatela horretarako mo-  
durik dagoen. Erizainaren eta  
administratzailearen kasuan, ka-  
tera lanera badatoz ere, antzina-  
suna ez dezatela galdu eskatuko  
dugu. Hala ere, hau ez da Fago-  
rreko Kontseilu Sozialak baka-  
rrik aztertu beharreko gaia; La-  
gun Arok eta Euskadiko Kutxak  
ere eztabaidatu beharko lukete".

## AURREKARIAK

Igualako langileek salatu dutenez,  
"ez digute laga Osakidetza-  
ren sartzeko negoziazioetan parte har-  
tzen; ez dakigu nolako tratuak  
egin dituzten. Dakiguna da,  
1988an Asistentzia Zentroa Osa-  
kideztara pasatzean Lagun Arok  
eskatu zigula geunden egoeran  
lanean jarraitzea. Lan kontra-  
tuarekin jardun dugu beti. Liga  
de Asistencia y Educacion dela-  
koa sortu zenean, Kooperatibaz  
kanpo hasi ginen, horrela eska-  
tuta. Orain, gure egoerari irtee-  
ra emateko, Bilboko abokatu tal-  
de bat kontratatu dute Osakide-  
tzarekin negoziatzeko eta  
enplegua erregulatzeko espe-  
dientea irekiko digute".

## Ederlan enpresaren 40 urteak liburu batean jaso dituzte

*1963an bideari ekin zionetik gaur egunera arteko ibilbidea batzen du*

M.B.

Fagor Ederlan Kooperatiba  
Elkartearen 40 urteko historia  
batzen duen liburua kaleratu

dute berriki; baita langileen arte-  
an banatu ere. Zortzi atal nagusi-  
tan barrena, 1963an ekin zionetik  
gaur egunera arteko ibilbidea jaso-  
zen du, lantegiarendako une  
garrantzitsuak izan direnak  
nabarmenduz.

Auto fabrikatzaileen horni-  
tzaile garrantzitsua da gaur egun  
Ederlan Taldea, eta Euskal  
Herriaz gain, Brasilen ere badu  
lantegia.



40. urtemugaren liburua lanbileen artean banatu dute Ederlanen.

Enpresa orrialdearen babeslea:



OÑATI  
Tel.: 943 71 80 80  
Faxa: 943 71 80 45

ARRASATE  
Tel.: 943 71 24 24  
Faxa: 943 71 22 98

ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 24 11  
Faxa: 943 71 20 04

www.memesa.com



## Albiste izango da

DEBAGOIENA | OTSAILA ETA MARTXOAN IZANGO DIRA

### Eski irteerak deitu dituzte Oñatin, Aretxabaletan eta Eskoriatzan

Aretxabaletako Murruxiko elkarteak Luz Ardidenera irteera antolatu du otsailaren 19 eta 20rako. Bazkideendako, 90 euro da; gainerakoendako, 95. Izena emateko, jo euren egoitzara martitzenetan, 19:00-20:00 bitartean. Eskoriatzan, berriz, otsailaren 12an eta 13an eta martxoaren 5ean eta 6an irteera bana egingo dute kirol elkar-teko mendi sailekoek. Argibideetarako, deitu 943 71 43 27 telefonora. Oñatin, Baqueira Beretera joango dira otsailaren 25etik 27ra eta martxoaren 11tik 13ra. Izen-ematea zabalik dago Aloña Mendi tabernan, martitzen eta eguaztenetan, 19:30-21:00 bitartean.

ESKORIATZA | MARTITZENEAN ETA EGUAZTENEAN

### Zubillagako hiltegia eta harakin eta ganaduzaleen etorkizuna hizpide

Udalak Zubillagako hiltegia eta Debagoieneko harakin eta ganaduzaleen etorkizuna izeneko jardunaldiak antolatu ditu. Bi hitzaldi egongo dira: bata, bihar, martitzena eta bestea, etzi, eguaztena; biak hala biak, 18:00etan, Ibarraundi Museoa. Martitzenekoan zortzi hizlari egongo dira, besteak beste, German Berezibar (hiltegiko gerentea), Mari Karmen Iturbe (Debagoieneko Landa Garapenerako elkarte kidea), Eneko Karrera (EHNE sindikatukoa), German Muruamendiarrak (kalitatea Fundaziokoa) eta Juan Karlos Bengoa, (Eskoriatzako alkatea). Eguaztenean, berriz, bost hizlari egongo dira, besteak beste: Jon Leturia (Gipuzkoako Harakinen Federaziokoa), Eneko Egibar (albaitaria) eta Pedro Lasagabaster (ganaduzalea).

OÑATI | 18:00ETAN ABIATUKO DA, HERRIKO PLAZATIK

### San Martin egoitzako langileek manifestazioa deitu dute biharko

San Martin egoitzako langileek manifestazioa deitu dute biharko, martitzena, protesta-mobilizazioekin jarraituz. Manifestazioa 18:00etan abiatuko da herriko plazatik.

Urtarrilaren 17az geroztik geldi dago negoziazio prozesua San Martin egoitzako 12 langileren eta Eulen Servicios Socio sanitarios SA enpresa azpikontratatuaren artean. Langileek salatu dute enpresak alde batez hartutako erabakia izan dela hori eta horrez gain, hiru langile ere kaleratu dituela, zerbitzu amaieraren aitzakiarekin. Bestalde, diote, enpresak ez dituela borondatezko hobeak onartu nahi eta eurak horren alde egingo dutela borroka. Hori horrela, hitzarmen duin baten aldeko eta hiru kaleratuak onartzeko manifestazioa izango da biharkoa. Egunero lanuzteak ere egiten dituzte.

BERGARA | MARTXOAREN 11RA ARTE DA EPEA

### Txorimalo lehiaketarako izenematea zabaldu du Jardun elkarteak

Jardun Euskara Elkarteak XI. Txorimalo lehiaketaren oinarriak kaleratu ditu. Nahi duen edonork har dezake parte, bakarka zein taldean (gehienez zortzi lagun taldeko). Materialari dagokionez, edozein erabil daiteke baina txorimalo bakoitzak oinarri edo ardatz bat izan beharko du, lurtean tinko eta zutik gera dadin. Lehiaketa 2005eko martxoaren 19an egingo dute, Erramu Zapatuko ferian, eta sari banaketa, 12:30etan izango da. Izen-ematea martxoaren 11n bukatuko da. Horretarako jo Jardun elkartearen bulegora (Errotalde jauregia) edo deitu 943 76 08 19 zenbakira.

ARETXABALETA | ZAPATUETAN IZANGO DIRA ESKOLAK

### Patinaje eta skate ikastarorako izen-ematea bihar bukatuko da

Udal Kirol Sailak patinaje eta skate ikastarorako antolatu ditu. Patinajearen bi maila egongo dira: hastapena eta hobekuntza. Eskolak, berriz, zapatuetan izango dira. Kirol zerbitzuko abonatuak 20 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, berriz, 24 euro.

Skate ikastarorako maila bakarra egongo da. Zapatuetan izango da hori ere, eta eskolak 13:30etatik 14:30etara izango dira. Kirol zerbitzuko abonatuak 9 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, berriz, 12 euro. Batean zein bestean izena emateko, deitu 943 71 26 28 telefono zenbakira. Izena emateko epea, bihar, martitzena, bukatuko da.

## Hitzorduak



### AIZKORRIKO PARKEAZ BERBA EGINGO DU JAURLARITZAKO KIDE BATEK | Bioaniztasuneko zuzendari Josu Erkiaga izango da Aretxabaletan

Aizkorri-Aratz parke naturalaz herritarrek berba egin eta galderei erantzutera etorriko da etzi, eguaztena, Josu Erkiaga, Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu saileko Bioaniztasuneko zuzendaria. Aretxabaletako udaletxean izango da hitzaldia, 19:00etan.

Inguru hartako natura baliabideak antolatze-ko planaren gainean egingo du berba. Debagoieneko ingurumenaz kezka duten guztioi egiten diete dei hara joateko. Otsailaren 22ra bitartean dute aukera herritarrek proiektuari alegazioak aurkezteko.

#### ANTZUOLA |

• **Gurasoendako hitzaldia izango da egunean, hilak 10**  
*Bizikidetzaren oinarriak: gatazkak nola bideratu* delako hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak egunean, hilak 10, eskolako aretoan, 18:00etan.

#### ARETXABALETA |

• **Tsunamiak kaltetutakoei laguntzeko dirua batuko dute**  
Asiako hego-ekialdean izan zen tsunamiak kaltetutakoei laguntzeko dirua batuko du Udalak. Herritarrek dirua eman dezaten kutxa bat jarri dute udaletxeko harreran.

• **Odola emateko aukera dago gaur, astelehena**  
Osasun zentroan egingo dituzte odol-ateratzeak, 16:00-20:00.

• **Curtiseko kartzelara martxa egingo dute hilaren 11n**  
Kepa Urria preso bisitatzerako joango dira. Izena emateko, jo Urbaltz tabernara.

• **Basotxoko Aingeru Guarda eguna eta bidaiaria bat**  
Basotxo erretiratuen egoitzako zaindariaren eguna ospatuko dute martxoaren 1ean. Taberna Berrin bazkalduko dute. Izenematea zabalik dago egoitzan bertan. Bestalde, Benidormera bidaiaria egingo dute apirilaren 23tik maiatzaren 7ra bitartean. Argibideak, Basotxo egoitzan.

#### ARRASATE |

• **Musakolako igerilekuak, aste osoan itxita**  
Musakolako igerileku girotuak itxita egongo dira otsailaren 7tik 13ra bitartean, urteko garbiketa egiteko. Medikuek aginduta igerilekura joan behar dutenek Aretxabaletako igerilekua erabiltzeko aukera izango dute, Musakolan hala eskatuta. Sauna eta lurrunbainua zabalik egongo dira. Argibide gehiagorako, deitu 943 77 16 77 telefonora.

• **Hastapen mailako jostakaria ikastarora deitu dute**  
Ekin Emakumeak elkarteak antolatu du ikastarora otsailaren 21, 23 eta 24rako. 10-12 lagunek taldeak osatuko dituzte. Izenematea zabalik dago hilaren 17ra bitartean.

• **58koen kinto batzarrerako izenematea zabalik dago**  
58ko kintoek meza eta bazkaria egingo dituzte martxoaren 12an. Izenematea martxoaren 6a baino lehen egin behar da, Jose Riviere edo Pedro Fernandezengana joaz.

• **40an jaiotako emakumeen batzarrerako izenematea**  
Ospakizuna izango dute otsailaren 26an. Meza entzun eta batera bazkalduko dute Hostalean. Izena emateko, jo Hire liburu-dendara hilaren 19a baino lehen. 20 euro aurreratu behar da.

#### • Bedoñabe Haurreskolan

**aurre-matrikulazio epea**  
0-2 urte bitarteko umeen aurre-matrikulazioa zabalik dago aste osoan. Argibideak: 943 79 76 86 telefonon.

#### BERGARA |

• **Windows eta Microsoft Word ikasteko aukera**  
Windows eta Microsoft Word ikastarora deitu du Udal Enplegu Sailak otsailaren 14tik 18ra bitartean. Izenematea zabalik dago udaletxean aste osoan.

• **Egunean, hilak 10, hasiko da jolas-kanta ikastarora**  
Udalak Gehixago eta Hobeto programaren barruan antolatutako jolas-kanten ikastarora otsailaren 10ean, eguena, hasiko da. Mariaren Lagundia ikastetxean izango da, 15:00-16:30, Ana Carpintero irakaslearekin, euskaraz. 20 parte-hartzaileek 12 orduko ikastarora egingo dute zortzi saiotan.

#### OÑATI |

• **Nerabeen gaineko hitzaldia izango da egubakoitzean**  
*Nerabeak jarrera arriskutsuetatik aldentzeko, gurasoek bete behar duten papera* delako hitzaldia, joan den astean egitekoa zena, hilaren 11n, egubakoitzean, egingo du Hilario Garrudok Zuazola institutuan, 18:00etan, herri eskolak antolatuta.



# Iritziak



## Isilpekoak

**943 76 92 71**  
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

### • Autopista obretan baina bidesaria gora

A-8 autopista sarritan hartzen duen irakurle batek txistua bidali du. "Sarritan erabiltzen dut A-8 autopista. Urtarrilean, bidesariarik gora egin dute eta ez dut ulertzen ibilbidearen hainbat lekutan lanak burutzen ari diren autopista batean. Donostia aldean aspaldian zirkulatu dugu bazterbiderik gabeko autopistetan. Aste honetan, bestalde, Eibar inguruan Donostiarako norabidea asfaltatzen hasi dira eta trafikoarentzat bi errei besterik ez dago. Zerbitzuak okerrera egin du, baina. Prezioak igotzeko, ordea, ez dute zalantzarik izan. Aurpegia behar da!"

### • Isunak Bergaran

Beste irakurle batek ere txistuak bidali dizkigu, kasu honetan Bergarako udaltzainendako. "Ez dakit txistuak edo txaloak merezi dituzten. Barikuan isuna jarri zidaten Bergarako udaltzainek Irizar kalean gaizki aparkatzeagatik. Autoa gaizki aparkatuta zegoen, ez dut aitzakiarik. Kontua da autoa 10:10ean utzi nuela eta isuna 10:15ean jarri zidatela. Ordu laurden eman nuen bulego batean sartu-atera bat egiteko. Beti dira hain eraginkorrak Bergarako udaltzainak? Beti dira hain azkarrak euren lanean? Isuna berehala ordaindu nuen baina eskaera bat egin behar dut hurrengorako: mesedez salaketan isunaren kopurua zenbatekoa den jarri, garrantzitsua da eta".

### • Arantzetako bihurtu topografoak

Txaloak ere jaso ditugu: "Bariku goizean topografoak ikusi nituen Bergaratik Elgetarako bidean Arantzetako bihurtuak neurtzen. Benetan egingo dituzte beraz lanak hemen? Lehen mugimenduak ikusi ditut eta pozten naiz. Orain, jarraitu egin behar, ea lehenbailehen errepideko lanak hasten diren".

## Sarean harrapatuta

### Baduzu konfiantzarik GKEetan?

Eskoriatzako Udalak 22.429 euro banatuko ditu gobernuz kanpoko bost erakunderen artean: Mundu Solidarioa Helburu, Boheri, Txiapasekin Elkartasuna Euskal Platafor-  
ma, Debaioieneko Gobernu Kanpoko

Erakundeen Partzuergoa eta Atxorrotx. Horren harira, honako galdera hau jarri dute *Goiena.net*-eko Eskoriatzako eztabaidan: baduzu konfiantzarik gobernuz kanpoko erakundeetan? Hemen erantzun batzuk.

#### LAGUNTZA IRITSIKO DEN ZALANTZA IZATEN DUT

Konfiantza osoz ematen ditut diru-laguntzak. Baina egia da askotan zalantza sortzen dela ea benetan helduko zen edo ez. Esku onetan egongo den edo beharra ez duten bateren batzuk geratu ote diren nik emandako dirua-rekin.

Ni neu / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

#### JAKIN BEHAR DA DIRUA NORI EMAN ETA NORI EZ

Jakin behar da dirua nori eman eta nori ez. GKE izeneko batzuk ez didate konfiantza askorik ematen, baina badaude konfiantzazkoak ere. Adibidez, hor dago bailaran Mundukide. Nik badut konfiantza Mundukiden, eta ikusten baduzu, gainera, zer proiektu egiten dituzten, zertan gastatzen duten dirua... Horrek konfiantza ematen dizu. Beste GKE batzuk esaten dizute dirua emateko, baina gero ez dakizu zertan gastatzen duten.

GKE bati dirua eman baino lehen, onena da diru hori zertan gastatuko duten jakitea.

Amaia / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

#### ARAZO DA MUNDUAN DIRUA DUTENENA

Orduan, arazoa ez da gobernuz kanpoko erakundeena. Arazoa da mundu honena eta dirua

dutenena (dugunona). Ni fidatzen naiz GKEekin; guk emandako diru dena ez dela iristen, bada hori ez da GKEen kontua. Agintariak eta dirua mugitzen dutenek dute errua. Eta, noski, herri pobreetako agintariak dira lehenak beraien herria horrela utzi nahi dutenak.

Antxon / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

#### GURE DIRU-LAGUNTZAK EZ DIRA NAHIKOA

Agintariak nahi balute munduan pobrezia arazoa konponduta

legoke honezkero. Nire ustez, guk eman ditzakegun diru-laguntza txikiak ez dute ezer konponduko.

Aitor / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

#### MUNDUKO ARAZOA EZ DA BEREHALA KONPONDUKO

Munduko pobrezia ez du konponduko gure laguntzak, hori segurua. Baina etxea ez da teila-tutik hasten eraikitzen, behetik hasi behar da eta gu pixka bat ematen hasiz gero hasiko ginateke etxea behetik eraikitzen. Ezin da munduko egoera hola edo hala konpondu, baina hobetu daiteke, pixkanaka. Ez dugu pentsatu behar segituan konponduko direla hemen arazoak.

Iurgi / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)


#### EZ DA NORMALA HAINBESTE GKE EGOTEA

Ez dut konfiantza handiegirik gobernuz kanpoko erakundeengan eta, badaezpada ere, ez diet dirurik ematen. Gero, ea zertan gastatzen duten nik emandako dirua! Askok beren poltsikoak betetzeko, segurua. Hainbeste kampaia egoten dira, hainbeste GKE daude... Hori ez da normala. Eta hobe Eskoriatzako Udalak diru hori beste zerbaitetan gastatuko balu; herritarren beharretan, adibidez.

Lurdes / [www.goiena.net](http://www.goiena.net)

## www.goiena.net

Baduzu konfiantzarik gobernuz kanpoko erakundeetan?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo [www.goiena.net](http://www.goiena.net) webgunera

## Halaxe erantzun digute

Zein da zure iritziz Realaren gaur egungo arazo ekonomikoaren arrazoia



ASIER ARANGUREN | KIROKAZETARIA

"Ez naiz urak harrotzen hasiko. Galdera honek erantzun bakarra du. Argi dago Reala daukana baino diru gehiago gastatzen ari dela, normalean Gipuzkoako ganorazko etxeetan egiten ez den bezala. Horregatik ditu egun ezagutzen dizkiogun arazo ekonomikoak".



BITTOR ARRIARAN | BONBA TALDEA

"Fitxaketa garestiak egin dira, baina garestienak jendeak eskatuta ekarri dira. Hor joan da dirua. Orain gaizki esaka ibiltzea oso erraza da. Hain fitxatze txarrak izango balira, bestalde, Reala ez luke lehenengo mailan jarraituko eta oraingoz lehenengo mailan dago".



JUANAN LARRAÑAGA | REALEKO JOKALARI OHIA

"Arrazoa jakiteko barruan egon behar da. Kanpotik ikusita behintzat gestio txar baten ondorioa dela dirudi. Zulo handia dago esaten dutenez eta zorra handia da antza. Hori da behintzat taldekanpo gaudenok jasotzen dugun informazioa. Gestio txarrenden ondorioa dela dirudi".



JUANJO ARRIETA | EIBAR SD ZUZENDARITZAKOIA

"Ez naiz inor Realaren arazo ekonomikoetan sartzeko, baina uste dut diru asko gastatu dela kanpoko fitxaketetan. Realzalea naiz eta egoera estu honetan denok elkartzea eskatuko nuke. Garbi dut dirua kapital-zabalkuntzaren bidez lortu behar dela eta ez diru publikoa onartuz".




## Egunkarietako harribitxiak

### UME SOLDADUAK

Munduan 300.000 ume soldadu ei daude. Halaxe jaso zuen atzo *Zazpika* gehigarriak hamabi orrialdetako erreportajea. Kongon, Sierra Leonan, Kolonbian... planetan barrena hedatutako 30 bat gatazkatan hartzen dute parte. Euren zeregina da aurkaria torturatzea eta hiltzea. Borreroak dira eta aldi berean gizarteak eragindako biktima.

'Zazpika'  
2005-02-6



### XELEBREKERIA EDO ONGI PENTSATUA?


"Tiraniaren aurrelerroa" zeintzuk osatzen duten esan berri dute Ameriketako Estatu Batuek. Baina zer dago zerrendaren eta hura osatzen duten herrialdeen atzean? Galdera horren erantzuna ematen saiatu zen atzo Gabriel Ezkurdia kazetaria *Berria* egunkarian egindako erreportajea. "Gaizkiaren ardatza" osatzen dute Bushen esanetan: Iranek, Ipar Koreak, Kubak, Bielorrusiak,

Myanmarrek eta Zinbawek. Orain arte, Afganistanek, Irakek, Iranek eta Ipar Koreak osatzen zuten zerrenda. Kazetariaren esanetan, zerrenda berria egiteko hiru ustezko irizpide teoriko erabili dituztela ematen du: Estatu arriskutsuak, ideologikoki kontrajarriak direnak, eta aitzakia hutsa direnak edo zerrenda betetzekoak.

'Berria'  
2005-02-7



## Tira, tira...



Ripa 'Deia' | 2005-11-7

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Gara'

DEMOKRAZIA ETA AUTOGOBERNU TESTA

Euskal gizartearen gehiengoarekin talka egiten duen erabakia hartzen badu Zapaterok, Gasteizeko legebiltzarra -ezker abertzalea hauteskundeetan egotea nahi duela dio- izan beharko da hauteskundearen izaera demokratikoa defendatu beharko duena. Jokoan dago printzipio bat: euskal gizarteak dela bere etorkizuna aukeratzeko duena.

Editoriala  
2005-02-7

### 'Deia'

PILOTA BESTEEN TEILATUAN

Hauteskundeetan parte hartzeko irtenbidea euren teilatuan izan ezik, beste guztienean jartzen dute Batasunako agintariak. Guztiak izango dira errudun eurak ezin badiara hauteskundeetan egon. Baina bada aukera bat aipatu ere ez dena egin: Batasunak ETArri armak lagatzeko eskatzea, edo indarkeria ekintzak gaitzestea.

Editoriala  
2005-02-7

### 'El Mundo'

PLANAK AURRERA JARRAITZEN DU

Ibarretzek esan zuen hiruko gobernuak lan egingo duela Batasunak hauteskundeetan parte har dezan, eta gehitu zuen Zapaterok aukera hori bere eskuetan duela. Hori faltua da, legez kanporatzea Auzitegi Gorenak erabaki zuelako. Ibarretzek hori bada-ki, baina nahiago du demagogia egin eta erradikalen botoak irabazi.

Editoriala  
2005-02-7

### 'El Diario Vasco'

ELKARRIZKETA

Nazionalismoa, gauzen halako distortsio neurritan ari da iristen non eskatzen dion Espainiako gobernuari Batasuna legeztatzeke; badaki, gainera, hori ez dela exekutiboaren gauza. Guztiok dakigu legez kanpo lagatzearen onuradun bakarra EAJ izan dela. Batasuna legeztatzea nahiko balute legegintzaldia bukatu egingo zuket.

Jesus Egiguren  
2005-02-7

## Zorroztailea

### Pedro Casaldaliga



*Aita Santuak sarri esan du azken unera arte bere postuan jarraitzeko asmoa duela. "Zenbat irarungo dudan ez da nire kontua, Jainkoarena baizik, deitu nauena eta, duina ez naizen arren, hemen ipini nauena. Etorrarazi nauenak esan beharko du noiz joan behar dudan". Eta beste batzuetan: "Egin otoitz, Jainkoak nahi arte Elizari leial zerbitzatu ahal diezaiodan".*

'El Mundo' | 2005-02-06

res mundutarren ginetik, edo, okerrago, ez dator haiekin bat. Askapeneko Teologiako beste apaiz batek esan zuen "erratsen banaiz, nahiago dut erratu txiroen alde, Eliza askotan erratu baita aberatsen alde", eta gotzain berria behar ez den aldera erratuko den beldur dira Sao Felixeko biztanleak. Baina Casaldaligak defenditzen du kristau onak bere kontzientziaren aurkako den guztiari aurre egin behar diola, eta hala, Vatikanuari aurre egiten jarraituko du; berak ere, Wojtylak bezala, azken unera arte, baina hari ematen zaion errekonozimendu barik.

Vatikanoarekin bat ez zeterren kristautasuna erakutsi eta irakatsi duen gotzaina kenduko dute, baina bere konpromisoaren eredia hor geratuko da, begiratu nahi dionarendako, behintzat.

Leire Kortabarria

Juan Paulo II.k Eliza Katolikoren buru izaten jarraituko du, eta irakurri berri ditut miresmenez betetako artikulugile baten laudorioak, eta ikusi fededunen debozioa haren ospitale gela aurrean. Zer pentsatuko luke bere bizitza Elizari, baina txiroen Elizari, eskaini dion Pedro Casaldaligak, Sao Felix de Araguaian (Brasil) gotzain eta Askapenaren Teologiako kideak, horren aurrean? Zer, Aita Santuaren ekimena txalotu egiten duten purpuradun berberak beste gotzain hau bere misioa ordeko bati uztera behartzen dute-nean?

Casaldaliga ere oso gaixo dago, eta bere ilusioa da bizitza eskaini dien txiroen artean hiltzea; baina bere misioa, beste batzuen ez bezala, ez dago inte-

**"Casaldaligaren ilusioa da bizitza eskaini dien txiroen artean hiltzea; bere misioa ez dago interes mundutarren ginetik"**

**"Casaldaligak defenditzen du kristau onak bere kontzientziaren aurkako den guztiari aurre egin behar diola"**



# KIROLA

- Mugarri Alkesak partiduak irabazten jarraitzen du, oraingoan Zallari 94-72 irabazi zion | 19
- Iñaki eta Inazio Perurena aita-semeez ikuskizun bikaina eskaini zuten Bergaran | 20

Kilometroen alde  
500 bat euro batu  
ziren Bidasoa eta  
Tekaren arteko  
partiduan | 18

FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Mikel Artetak taldea utzi zuen joan den astean Evertonera joateko. Taldea uzten hurrengoa, taldeko izarra den Nihat turkiarra izan daiteke Realak diru beharrean dago eta.

REALA | TALDE TXURI-URDINA KRISI SAKONEAN SARTUTA DAGOELA JAKIN DUGU JOAN DEN ASTEAN

## Urtarrileko aldapa gehiegi luzatu zaio Realeko diru-kutxari



Jokin Etxebarria

*Zapatuan joko hobea erakutsi arren, emaitzak ez zuen batere lagundu, eta talde txuri-urdina putzuan sartuta dago, bai kirol mailan, bai ekonomikoki*

Protagonista asko egon dira astean zehar Realaren inguruan, eta dena kontatzeko leku gutxi dago artikulu honetan.

Notizia *bonba* horietako batekin hasi genuen astea. Tximista bezain azkarra izan zen operazio batean, Evertonek Mikel

Arteta eraman zuen Ingalaterra aldera. Denboraldi hasieran galdetu nuen norbaitek donostiarra jokatzeko ikusi ote zuen. Bada, beste denboraldi batez gutxienez, ez dugu jokatzeko ikusiko. Gauza guztiek ei dute bere alde ona. Kasu honetan, Realak,

gutxienez, diru pixka bat atera du jokalaririk batzuekin zuen zorra kitatzeko. Baina Evertonek zenbat diru ordaindu zuen jakitearekin batera Realak zor handia duela ere enteratu ginen. Eta baita ere, jakin dugu, zor hori kitatzeko zailtasun handiak izan-

go dituela talde donostiarrak. Oraindik ez dut ulertzen dirua non gastatu den, edo nork ezkutatu duen. Duela bi urte, Realak lehen mailan zeuden taldeetan zorrik ez zuen klub gutxienezkoa zen. Orain, berriz, ia 15 milioi euroko zorra ei du. Non gelditu dira *Championseko* irabaziak? Eta non Liverpoollek Xabi Alonsoren kontratua ordaindu duen?

Uste dut, Zuzendaritzako kideek azaltzeko asko daukate, eta ezkutaketan jolasteari utzi beharko diotela. Txarrena da, zor hori kentzeko taldeko izarra saldu beharko dutela: Nihat tur-

kiarra. Dagoeneko badaude zurrumurru batzuk behintzat. Nire ustez, zorra kentzeko saldu behar badute, lehenbailehen saldu beharko dute. Datorren urtean ez du eta ezer balioko, turkiarraren kontratua azken urtea da eta hurrengoa.

Gutxienez, eta zapatuan ikusi zenarengatik zaleak lagun dituzten taldeak. Dagoeneko zaleak konturatu dira taldeak euren laguntza behar duela, nahiz eta klubak haur gehiegi lagundu ez. Jokari dagokionez, zapatuan bezala jokatzeko bada, ondo. Baina, emaitzek ere lagundu beharko dute.



FUTBOLEKO LEHEN MAILAKO TALDEAK

• ZER IRUDITZEN ZAIZU ARTETA JOAN IZANA? ZEIN IZANGO DA HURRENGOA?



IÑAKI | BERGARA

“Hemen ez badu jokatzeko normala da joan izana”


“Ez zait gaizki iruditzen. Hemen ez badu jokatzeko normala da. Taldetik irtengo den hurrengoa Nihat izango da”.



LANDER, ASIER, JULEN ETA JON | BERGARA

“Joaten hurrengoa Nihat izango da ziurrenik. Izan ere, turkiarra Realeko jokalaririk onena da gaur egun”

“Berdin zaigu Arteta joan izana. Izan ere, hemen ez duen jokatzeko normala da nahiz eta minutu gehiago jokatu beharko lituzkeen jokalaririk onena delako, dirua lortu du Realak horrela. Joaten hurrengoa, Nihat izango da ziurrenik. Izan ere turkiarra da Realeko jokalaririk onena gaur egun”.



JOSE ANTONIO | OÑATI

“Hurrengoa? Ez dago dudarik: Nihat”

“Gaizki iruditzen zait horren jokalaririk onena izan behar duela, baina berak jokatzeko nahiko du. Hurrengoa? Ez dago dudarik: Nihat”.



IÑAZIO ETA ANGEL | OÑATI

“Artetak izen asko zuen, eta joko gutxi. Realean ez du ezer erakutsi behintzat”

“Artetak izen asko zuen, eta joko gutxi. Realean ez du ezer erakutsi behintzat. Hori bai ondo kobratu du. Berarekin irabazi den dirua ondo dator. Hurrengoa irteten Nihat izango da, baina orduan ere jende gaztearekin jokatu du”.



PAXO ETA CARLOS | ZARAUTZ

“Joaten hurrengoa Nihat izango da, eta Riesgo ere posible da joatea”

“Ondo iruditzen zaigu joan izana. Izan ere, hasieratik egin dute gaizki jokalaririk onenak. Xabi Alonso joan behar zelako ekarri zuten, eta gure ustez ez zuten ekarri behar. Joaten hurrengoa Nihat izango da, eta Riesgo ere posible da joatea”.

Athletic

Pino Zamoranok moztu zuen Athleticen zelaian erakutsitako nagusitasuna

Riazorren jaun eta jabe izan zen talde zurigorria, baina epaileak papelak guztiz galdu zituen eta horrela zaila da



Ion Unamuno

Zelako partidu ona jokatu zuen Athleticen eta zelako gaizki epaitu zuen Pino Zamoranok! Aukera oso garbiak izan ez arren, zela erdiaren jabe egin zen eta minutu askotan Deportivo txuleatu zuen. Zelaian jokalaririk gazte ugari ipini zituen hamaikakoan Valverde eta benetan lan txukuna egin zuten. Solabarrietak hasieratik jokatzeko aukera izan zuen eta eskuin hegalean oso ondo jokatu zuen, baloi guztiak amaiera arte borrokatuz.

Partiduko protagonista Pino Zamorano bihurtu zen. Epaile txarra da, izan ere, partidu guztian erabaki ulergaitz asko hartu zituen. Penaltien jokaldia lotsagabekeria hutsa izan zen, berak ez baitzuen penaltia ikusi eta marrazainaren erabakian gehiago fidatu zen. Nola ez, Athleticen jokalariek ezin zuten sinezi epaileak hartutako erabakia, jokaldia gertatu eta minutu batera adierazi zuen eta penaltia.

SUPER ATHLETIC

Etxetik kanpo hasiera oso kasarra izan bazuten ere, 2005. urtean lau partiduetatik ez dute bat ere galdu. Atzokoan ere, erakutsi zuten jokoa maila altukoa izan zen. Atzean gero eta hobeto dabilta bilbotarrak, baina oraindik ere akats inuzente batzuk egiten dituzte. Zelai erditik gora jokalaririk ikusgarriak ditu Athleticen. 35 metrotatik izugarriko gola sartu zuen Orbaizek, ondo gidatzen du taldea. Tikori ere konfidantza handiagoa ikusten zaio. Falta batean ziria sartu nahi izan zion Munuari, baina baloia gutxiagatik irten zen kanpora. Iraolaren ordez jokatu zuen Solabarrietak lan asko egin zuen, ondo eginiko lana. Yestek beti ateratzen du zerbait bere txisterratik. Atzokoan ere, Etxeberriak baloia gora bota zuen arren, izugarriko pasea egin zion. Beste batean inork ez zion ulertu, baina intentzioz eginiko pasea izan zen. Beharbada hori falta da, bere intentzioak ulertzen dituen jokalariak.

DEPORTIVO

1-1

ATHLETIC

Deportivo | Munua, Manuel Pablo (Victor 57. min.), Romero, Colocinni, Andrade, Scaloni, Sergio, Luque, Dusher (Munitis 78. min.), Valeron eta Tristan.

Athletic | Arantzubia, Murillo, Gurpegi, Luis Prieto, Casas, Orbaiz, Tiko, Solabarrieta, Yeste, Llorente eta Etxeberria.

Golak: 0-1 Orbaiz (50. minutuan). 1-1 Tristan (85. minutuan).

Epailea: Pino Zamorano. Oso txarra. Ez zuen ezer ondo egin: abantailaren legea gaizki aplikatu, txartel gehiegi Athleticen eta penaltien jokaldia. Penagarri.

Bikain

ORBAIZ

Zelai erdiaren jabe izateaz gain, ezkerrekin sartu zuen gola milatik bat sartzen diren horietakoa izan zen. Athleticen bihotza bihurtu da jokalaririk onena.

Kaskar

PINO ZAMORANO

Gehiegi kritikatzeko nabilela pentsatuko du bateren batek, baina merezi du. Athletic bi puntu gutxiagorekin bueltatu zen haren erruz.

laria. Ezin gara kexatu. Llorente hasi berria da. Jokalaririk onena da, denborarekin ikasiko du. Hilabete eta gero jokatu zuen Urzaizek eta lan handia egin beharko du hamaikakoan sartzeko. Etxeberriak Athleticen bigarren gola sartu zuen, baina jokoz kanpoagatik baliogabetu zituen.

Ilusioa pizten duen taldea da eta Pino Zamoranoren tankerako epailek ilusioa mozteko amorruta ematen du. Hori gertatu zen atzokoan, ilusioa moztu zuela.

2005. urtean etxetik kanpo ez dute partidu bat ere galdu

Ilusioa pizten duen taldea da eta Pino Zamoranoren tankerako epailek ilusioa mozten dute

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

Deportivo-Athletic	1-1
Bartzelona-At. Madril	0-2
R. Madril-Espanyol	4-0
Vila-real-Racing	2-1
Levante-Sevilla	0-3
Real-Valentzia	3-3
Albacete-Zaragoza	2-1
Malaga-Mallorca	0-0
Betis-Osasuna	3-1
Getafe-Numantzia	1-0

HURRENGOAK

Mallorca-Albacete
Zaragoza-Bartzelona
Athletic-Betis
Valentzia-Deportivo
Osasuna-R. Madril
Racing-Real
Espanyol-Getafe
At. Madril-Levante
Sevilla-Vila-real
Numantzia-Malaga

SAILKAPENA

	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	51	22	16	3	3	43	16
2. Real Madril	47	22	15	5	2	41	16
3. Valentzia	38	22	10	4	8	35	21
4. Sevilla	38	22	11	6	5	26	23
5. Vila-real	37	22	10	5	7	37	18
6. Betis	37	22	10	5	7	33	24
7. Espanyol	35	22	10	7	5	26	24
8. At. Madril	32	22	9	8	5	24	20
9. Athletic	31	22	8	7	7	33	28
10. Osasuna	29	22	8	9	5	32	37
11. Deportivo	29	22	6	5	11	31	31
12. Zaragoza	28	22	8	10	4	28	34
13. Getafe	26	22	7	10	5	22	25
14. Levante	25	22	7	11	4	25	36
15. Real	23	22	6	11	5	26	33
16. Albacete	23	22	5	9	8	20	29
17. Malaga	22	22	6	12	4	15	30
18. Racing	21	22	5	11	6	20	33
19. Mallorca	18	22	4	12	6	21	36
20. Numantzia	14	22	3	14	5	13	37



Kiniela

KINIELA

1. Betis-Osasuna	1
2. Deportivo-Athletic	X
3. Vila-real-Racing	1
4. Levante-Sevilla	2
5. Bartzelona-At. Madril	2
6. Albacete-Zaragoza	1
7. Malaga-Mallorca	X
8. Getafe-Numantzia	1
9. R. Madril-Espanyol	1
10. Real-Valentzia	X
11. Tenerife-Valladolid	2
12. Gimnastic-Celta	2
13. Lleida-Cadiz	2
14. Xerez-Salamanca	1





AITOR LIZARRALDE

Zelai erdian nagusi izan ziren zarauztarrak, batez ere lehen zatian.

## Atzokoan berriz galduta, putzuan sartu da Aloña

ALOÑA MENDI

1-3

ZARAUZT

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Ferreiro, Igar-tua, Jagoba, Olade, Garmendia (Astigarraga 57. min.), Garai, Biain (Zubia 73. min.), Albi-zu, U. Arregi (Ugarte 77. min.) eta I. Arre-gi (Aramendi 63. min.).

**Zarauzt** | Ibai, Xegu (Silban 55. min.), Errasti, Eneko, Apaka, Xato, Igor, Iker, (Belloso 62. min.), Lasa (Azpi 62. min.), Aitzol eta Arruti (Carlos 81. min.).

**Golak:** 0-1 Igor. 1-1 Garai. 1-2 Aitzol. 1-3 Carlos.

**Epailea:** Tornos jauna. Nahiko ondo ibili zen. Ez zuen eraginik izan markagailuan.

Jokin Etxebarria

Ez zuen zorte handiegirik izan Aloña Mendik atzokoan. Aukera pila izan zituen gola sartzeko, baina batzuetan atezainak erantzun ona eman zielako, bestetan, aurrelariak ez zutelako asmatu, edo defentsak azken momentuan baloia lapurtu zuelako, golik ezin egin ibili ziren. Eta golak egin ezan zaila izaten da irabaztea, batez ere kontrarioak gol gehiago sartzen baditu.

Lehen zatia oso polita izan zen. Joko oso irekia, eta aukerak bi areatan; baina etxeok ez zuten jakin golak sartzen, eta kostakoek aldiz euren sartu zuten kórner batean. Hortik aurrera, etxeok bultzatzen eta bul-

tza ibili ziren aurrera, baina ideia argirik gabe. Zarauzkoek partiduen kontrola zeramatzen, eta larritasunik ez zuten pasatu.

**GOLAK SEGITUAN**

Bigarren zatiaren hasiera berriz, guztiz bestelakoa izan zen. Etxeokak jo eta su irten ziren eraso-ra, eta aukera paregabeak izan zituzten. Baita gola egin ere hamargarren minuturako. Baina pobreak etxean pozak gutxi irauten duela, eta zarauztarrek bi minutura euren bigarrena egin zuten. Handik aurrera etxeok gora joan ziren berdinketaren bila, baina, gola ez zuten etxeok sartu, kostakoek baizik kontra-eraso batean; bide batez Aloña Mendi putzuan sartu zuten.

## Kontrolpean izandako partiduan, berdinketa

ANAITASUNA

0-0

ARETXABAETA

A.G.

Atzo Anaitasuna taldearen aurka jokaturako partidutik, zerbait gehiago ateratzea merezi izan zuen UDAk. Bi taldeak sailkapenean erdi aldean daude puntuetan berdindurik.

Atzoko partiduan, inork ez zuen arriskatu nahi izan, eta beraz, ez zen golik egon. UDAk kontrolatu zuen partidua hasie-

ratik, eta aukerak ere etxeko taldeak baino askoz gehiago izan zituen, baina ez zuen golik egin.

**AZKEN METROETAN EGIN ZUTEN HUTS**

UDA, azken aldian, joko ona egin ari da, baina puntuak golek ematen dituzte, eta golik ez bada sartzen ezin partidurik irabazi. Taldearen jokoa ona da, baita zelai erdiko presioa ere, baina goiko aldean baloia sareetara sartzeari falta zaie.

Anaitasunaren aurka puntu bat eta sailkapenean erdian daudela kontuan hartuta, momentuz arnasa lasai hartu dezakete. Ikusi beharko dugu zer gertatzen den datorren asteko partiduan Tolosaren aurka.



AITOR LIZARRALDE

Garinen golak lasaitasuna ekarri zuen zaleen artean.

## Esperantzaz beteriko hiru puntu poltsikora Bergarak

BERGARA

3-2

ORIOKO

**Bergara** | Markel, Berraondo, Ormaetxea, Aritz Agirre (Lete 77. min.), Loiola, Oskar, Zubikarai (Ibai 70. min.), Imanol (Unai Agirre 76. min.), Garin, Otero eta Arana (Lazpiur 87. min.).

**Orioko** | Galan, Arruti, Seguro (Padrones 45. min.), Goikoetxea, Asier Solabarrieta, Jagoba Solabarrieta (Lizarazu 87. min.), Saez (Sanchez 87. min.), Olaizola (Ibai 63. min.), Torre, Jauregi, Josu Solabarrieta.

**Golak:** 1-0 Zubikarai. 2-0 Otero. 2-1 Torre. 3-1 Garin. 3-2 Torre.

Ion Unamuno

Hiru puntu poltsikora. Bergarako egoera ikusita, hori da gaur egungo beharra: puntu pilaketa. Gordobilen mutilek indartsu hasi zuten partidua eta hirugarren minuturako, Zubikarainen jaur-

tiketa baten bidez, bat eta hutsekoa lortu zuten. Oriokoko taldean Torre aurrelariak sortzen zuen beldur gehien, baina ondo zaindua egon zen lehen zatian. 42. minutuan Zubikarainen jokaldi baten ostean, Oterok gol polita egin zuen. Bi eta hutseko markagailuaz, jarraitzaileek atsedenaldia lasaitasunez hartu zuten.

**SUFRITZEN IRABAZI**

Orioko mutilak gogo biziz irten ziren bigarren zatian eta aukera asko sortu zituzten lehenengo 15 minutuetan. Horrela, bi eta batekoa lortu zuten. Hiru puntuek ihes egin ahal zutelako ideia zabaldu zen zelaian, baina Bergarak bere baliabideak badituela erakutsi zuen. Aukera asko izan ostean, Garinek hirugarren gola egin zuen. Torrek taldearen eta bere bigarren gola partidua bukatzeaz zegoela sartu zuen. Hurrengo asteko arerioa, sailkapenean Bergararen antzeko egoeran dagoen Urola izango da. Puntu baliotsuak izango lirake.

## Aukerak baliatu ezean zaila da partidurik irabaztea

TRINTXERPE

1-0

MONDRA

**Trintxerpe** | Diez, Solana (Irazusta 66. min.), Belintxon, Gonzalez, Montaño, Marañá (Plata 62. min.), Escribano, Varela, Lasa (Rodriguez 46. min.), Perez eta Iza.

**Mondra** | Mondragon, Torres, Markel, Merkader, Argider, Arkaiz Garmendia, Loiti (Bereziartua 83. min.), Heriz (Eldin 75. min.), Ina (Ruben 77. min.) (Garmendia 88. min.), Keixi eta Asier.

**Golak:** 1-0 Rodriguez.

**Epailea:** Javier Martinez jauna. Ez zen finegi ibili. Ez zuen arrasatearren aldeko bi penalti argi ikusi.

Asteleheneko Goienkaria

Irabazteko partidu bat, azkenean galdu. Trintxerpek ez zuen ezer egin partidu guztian, baina izandako gol aukera bakarrean, 85. minutuan, gola egin zuten, eta jokoan zeuden hiru puntuekin gelditu ziren.

Mondrak azkenaldian baja pila bat ditu, min hartuak eta zigortuak batzen baditugu, baina hau ezin daiteke aitzakia bezala hartu. Izan ere, partidu guztian zehar jaun eta jabe izan ziren arrasatearrak. Partiduaren kontrola euren eraman zuten, eta kontrarioek baino askoz hobeto jokatu zuten. Baita aukera gehiago sortu ere. Baina aukerak baliatu egin behar dira partiduak irabazteko. Hori da funtsean futbo-



Zorte txarreko partidua.

la: daukazu aukerak barrura sartuta partidua irabaztea.

Datorren astean Real Union jasoko dute etxean, eta derrigorrez irabazi behar da.



• SENIOR MAILAKO NESKAK



AITOR LIZARRALDEA

**ALOÑA MENDI 0 - ANAITASUNA 6**

Elurratetik atzeratuta zuten partidua jokatu behar izan zuten asteburu honetan Aloña Mendiko neskek. Azpeitiarrek oso talde sendoa dute, eta denbora osoan erritmo berbera mantentzeko gai dira. Horren kontra ezin izan zuten ezer egin

oñatiarrek. Lehen zatian nahiko ondo eutsi zieten, eta gainera, aukerak sortu zituzten golak egiteko. Baina lehen zatia amaitzean zela gola jaso zuten kórner batean. Bigarren zatian, golak bata bestearen ondotik jausi ziren.

• GAZTEEN EUSKAL LIGA

**Asier Ugarte aurrelariaren bi golak ez ziren nahikoa izan**

ALOÑA MENDI	LAGUN ONAK
<b>2-4</b>	

Ion Unamuno

Merezitako porrota jasan zuten Aloña-koek zapatuan. Puntu gose etorri ziren azpeitiarrek, izan ere sailkapenaren azkenetarikoko postuetan zeuden 18 punturekin. Aloña, aldiz, 32 punturekin, sailkapenaren aurreko aldean zegoen. Hala ere, zelaian ez zen alde hori ikusi.

Lehen zatian 34. minutuan aurreratu zen Aloña, baina segituan berdindu zuten partidua Lagun Onakoek. Bigarren zatian hasieran Aloña izan zituen aukerarik garbienak. Karlosen jaurtiketa bat atepetik atera zuten azpeitiarrek. Hala ere, kontraerasoan min handia egin zuten Lagun Onakoek gazteek. Izan ere, horrela etorri ziren euren bigarren eta hirugarren golak. Aukera gehiago izan zituzten azpeitiarrek, baina Ota mendik geldiketa politik egin zituen. Amaieran, talde bakoi-tzak gol bana sartu zuten.

• OHOREZKO GAZTEAK

**Egundoko errebasoa eman zieten UDAkoek donostiarrei**

UDA	ALDAPETARRAK
<b>4-0</b>	

Jokin Etxebarria

Aretxabaletan jaiak hasi zituzten Santa Ageda egunez *kintok*. Eta hauetako gazte batzuek gainera partidua jokatu beharra zeukaten zapatu arratsaldean. Baina jaiak ez ziren txarrerako eragin. Guztiz kontrakoa gertatu zen. Hasiera-hasieratik aretxabaletarrak nagusi izan ziren zelaian. Aukera pila bat izan zituzten, batez ere lehen zatian, eta nahiz eta hasieran atezainaren aurrean ezin asmatu ibili ziren, azkenerako golak etortzen hasi ziren gutxika-gutxika, jokaldi onak eginez, eta kontrarioen hutsak aprobetxatuz. Bigarren zatian hasieran ere ibili ziren Aretxabaletako gazteak, eta bi gol gehiago sartu zituzten. Hortik aurrera, bukaera arte, markagailua mantentzea besterik ez zuten egin behar izan. Garaipen erraza, eta joko polita erakutsi zuten UDAkoek zapatu arratsaldean.

• OHOREZKO KADETEAK

**Mondrak ez zuten zortetik izan eta galdu egin zuten**

MONDRA	BASKONIA
<b>0-2</b>	

A.G.

Izotzagatik ordu bat berandua-go hasi zen partiduan ez zuten zortetik izan arrasatearrek. Partidua berdinduta hasi zen, eta lehen zatian aukera gehienak etxeko taldearentzat izan ziren arren, ez zuten asmatu gola egiten. Baskonia, eusten ari zen, aukera oso gutxi sortuz. Modu honetan, lehen zatia hurnako berdinketarekin amaitu zuten. Bigarren zatian berriz, Baskonia nagusi izan zen, batez ere goitik zetozen baloietan. Modu horretan bi kontraerasotan, bi gol egin zizkieten etxekoei. Azkenean, nahi eta ezin izan zen; saiatu ziren Fernando Urangaren mutilak, baina kanpotarren bi golak, errenta handia ziren etxekoak markagailuan hurbiltzeko. Horrela, porrota izan zen Atxabalpen eta hurrengo partiduari begira jarri beharko dira.



**Ikusitakoak ikusita**

Jasone Zabala

**NOIZ ARTE EDUKI BEHAR NAUTE SUFRITZEN...**

Bergarak, oraingoan ere sufritu izan bazen ere, garaipen oso garrantzitsua lortu zuen Oriokoren aurka, eta badirudi arnasa pixka bat hartzeko garaia duela. Aloña partidu ona egin zuen, baina ezin izan zuen goian ari den Zarautz taldearen aurka, eta galdu egin zuen. Mondrak, oso zorte txarra izan zuen; partidu guztian ederki aritu eta gero, Trintxerpe behin heldu zen Mondraren atera, eta bertan gola egin zuen. UDAk berdinketa lortu zuen Anaitasunaren aurka.

**Emaitzak eta sailkapenak**

PREFERENTE MAILA		BESTELAKOAK	
Sailkapena	Punt. J.	Emaitzak	
1. EHU	48 23	Aloña Mendi-Zarautz	1-3
2. Tolosa	46 23	Tolosa-Touring	1-0
3. Ordizia	41 23	Anaitasuna-UDA	0-0
4. Touring	37 23	Real Union-Pasaia	4-0
5. Zarautz	39 23	Trintxerpe-Mondra	1-0
6. Pasaia	35 23	Hondarr-Beti Gazte	1-1
7. Trintxerpe	34 23	Bergara-Orioko	3-2
8. Real Union	33 22	Oiartzun-Urola	5-2
9. Zestoa	30 23	Mutriku-Ordizia	1-2
10. Orioko	29 23		
11. Mondra	28 22	<b>Hurrengoak</b>	
12. Hondarribia	28 22	Zarautz-Zestoa	
13. Aretxabaleta	27 22	Touring-Aloña Mendi	
14. Mutriku	26 22	Aretxabaleta-Tolosa	
15. Anaitasuna	26 23	Pasaia-Anaitasuna	
16. Urola	23 22	Mondra-Real Union	
17. Aloña Mendi	22 23	Beti Gazte-Trintxerpe	
18. Bergara	25 23	Orioko-Hondarribia	
19. Beti Gazte	23 23	Urola-Bergara	
20. Oiartzun	15 23	Ordizia-Oiartzun	
		EHU-Mutriku	
<b>GAZTEEN EUSKAL LIGA</b>			
Sailkapena	Punt. J.	Emaitzak	
1. Barakaldo	45 20	Aloña M.-Lagun O.	2-4
2. San Inazio	41 20	Olarizu-Tolosa	0-3
3. Tolosa	41 20	Elgoibar-Barakaldo	0-1
4. Durango	36 20	Eibar-Bermeo	1-1
5. Eibar	33 20	Zugatarte-Amorebie.	2-1
6. Aloña Mendi	32 20	San Inazio-San M.	0-0
7. Zugatzarte	30 20	Sporting H.-Zalla	1-1
8. Amorebieta	27 20	Durango-Alde Z.	5-1
9. San Martzial	27 20		
10. Elgoibar	26 20	<b>Hurrengoak</b>	
11. Zalla	24 20	Alde Zaharra-Aloña M.	
12. Olarizu	21 20	Lagun Onak-Olarizu	
13. Lagun Onak	21 19	Tolosa-Elgoibar	
14. S.Herrera	16 20	Barakaldo-Eibar	
15. Bermeo	14 20	Bermeo-Zugatarte	
16. Alde Zaharra	7 19	Amorebieta-San Inazio	
		San Martzial-Sporting H.	
		Zalla-Durango	
<b>BIGARREN ERREGIONALA (KOPA)</b>			
Sailkapena	Punt. J.	Hurrengoak (otsailak 13an)	
1. La Salle	7 3	Zestoa-La Salle	
2. Lasarte Oria	6 3	Antzuola-Urki	
3. Antzuola	6 2	Amaroz-Lasarte Oria	
4. Urki	4 3	Donibane	Atsedena
5. Amaro	3 2	<b>Oharrak</b>	
6. Zestoa	0 2	Asteburu honetan ez da egon partidurik maila honetan. Datorren astean jarraituko dute Kopako partiduekin.	
7. Donibane	0 3		

**GAZTEEN OHOREZKO LIGA**

Aretxabaleta-Aldapetarrak	4-0
Urola-Mondra	2-0

**LEHEN MAILAKO GAZTEAK**

Orioko-Bergara	1-2
Arrasate-Urola	1-0
Urki-Aretxabaleta B Arizm.	0-2

**BIGARREN MAILAKO GAZTEAK**

Bergara	Atsedena
Antzuola	Atsedena

**KADETEEN OHOREZKO MAILA**

Arrasate-Baskonia	0-2
Aloña Mendi	Atsedena
Bergara	Atsedena

**LEHEN MAILAKO KADETEAK**

UDA Arizmendi-Billabona	3-0
-------------------------	-----

**BIGARREN MAILAKO KADETEAK**

UDA Arizmendi-Urki	3-1
Bergara	Atsedena
Antzuola	Atsedena

**EMAKUMEZKOEN LIGA (IGOERA)**

Aloña Mendi-Anaitasuna	0-6
Bergara	Atsedena
Almen Aretxabaleta	Atsedena
Mondra	Atsedena

**EMAKUMEEN F-8 LIGA**

Dunboa-Bergara	10-4
Almen Arizme.-Almen Aretxa.	0-5
Antzuola-Urki	b.b

**INFANTIL LEHEN MAILA (IGOERA)**

Bergara	Atsedena
Aloña Mendi	Atsedena

**INFANTIL LEHEN MAILA (KOPA)**

Arrasate	Atsedena
----------	----------

**INFANTIL TXIKI (KOPA)**

UDA Arizmendi-Beasain	4-0
-----------------------	-----

**INFANTIL F-8**

Aloña Mendi-Ordizia	2-2
Arizmendi C -Antzuola	1-3
Arizmendi B	Atsedena
Bergara	Atsedena



# Maximo Zangitu zena gogoratu zuten ibarreko kirol sarietan

*Aurtengo zirkuituan, ez dute palarik sartu, jende gutxi eman baitu izena, eta beharbada badmintona sartuko da*

Jasone Zabala

Zapatuan egin zuten Elgetan, Debagoieneko 2004ko kirol txapelketa zirkuituaren amaiera ekitaldia; baita 2005. urtekoa aurkeztu ere.

2004an frontenis, squash, tenis eta esku pilotako txapelketetan jokatu duten parte-har-

tzaileak saritu zituzten. Aurretik, baina, kirolean egiteko parada ere izan zuten. Hainbat jokatari aritu ziren, hala nola, bolotan, sare jokoa, zesta puntan eta squashean, beraien artean txapelketa txiki bat antolatuz. 12:30ean sari banaketa egin zuten. Sariak, hiru kirolean banatu zituzten: frontenisean, tenisean

eta squashean. Squasheko finalak Arrasaten jokatu dira, eta horregatik, Arrasateko squash arduradunari eman zizkioten sariak, final egunean irabazleen artean banatzeko. Esku pilotan, berriz, ez zuten saririk banatu; izan ere, partidu guztiak jokatu gabe daude oraindik, eta ez dute data berririk ipini falta diren pilota partiduak jokatzen.

2004ko zirkuituan, lau kiroleko bakoitzean 30 bat lagunek hartu du parte; Debagoieneko herri guztietakoak, eta kirola egiteaz gain, elkar ezagutzeko aukera izan dute txapelketak iraun duen bitartean.

## OMENALDI BEREZIA

Omenaldia egiteko ere aprobetxatu zuten goiza. Maximo Zangitu zenaren alargunari eta seme-ari, oroigarria eman zieten antolatzaileek. Maximo urtetan egon zen kirol ekintzetan murgilduta, horrelako txapelketak antolatzen, eta egindako lan guztiaga-

tik eskerrak eman nahi izan zizkioten.

Sari banaketan, Debagoieneko herri bakoitzeko kirol teknikariak, herrietako kirol zinegotziak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendaria, Iñaki Ugarteburu izan ziren bertan besteak beste. Sari banaketa, pilotalekuko gimnasioan egin zuten, ez zelako joan espero zen bezainbeste jende, baina bildutakoek goiz ederra pasa zuten bertan, eta ekitaldia amaitu ostean, bolatokiko tabernan hamaiketako ederra jan zuten. Giro polita beraz Elgetan eta 2005eko sariei itxarotera orain.

## Debagoien guztiko herrietakoek ematen dute izena zirkuituan

### • HAU EKIZIEN GENIITUEN EKITALDIKO PROTAGONISTAK



**SQUASH.** Iñaki Uribeberria izan zen, Arrasateko squash arduraduna, sariak hartzera joan zena. Arrasateko finala ondorengo hauek jokatuko dute: Alberto Ferreirok, Garikoitz Ibarzabalek eta Sergio Galdeanok; baina oraindik erabaki gabe dago noiz, horregatik jaso zituen Iñakik hiru sariak, finala jokatzen denean garaileen artean banatzeko. Sariak, Oñatiko kirol teknikariaren eskutik jaso zituen.



**FRONTENIS.** Frontenis txapelketa bikoteka jokatu zen, eta txapelketa amaieran lehen hiru postuetan gelditu zirenak hauek izan ziren: lehenengo postuan, Candido Hurtado eta Jose Izquierdo arrasatearrak; bigarren, Iñaki Sanchez eta Kepa Garcia, hauek ere arrasatearrak, eta hirugarren K. Barkala bergararra eta David Bellanco arrasatearra. Argazkian, sarituak sariak eman zituztenekin.



**TENISA.** Tenisean, bakarka jokatu zen txapelketa eta hiru irabazle izan ziren. Lehen postuan, Eneko Ugalde bergararra izan zen; bigarren, Jose Caballero arrasatearra sailkatu zen, eta hirugarren postuan, argazkian falta den Jabier Olaso oñatiarra. Argazkian, lehen bi sailkatuak, Bergarako kirol zinegotzia den Valentin Egidazuren eskutik saria jasotzen.



**SARI BEREZIA.** Maximo Zangitu zenaren omenez, azken sari berezi bat eman zuten. Bere emazteak eta semeak jaso zuten oroigarria, Gipuzkoako Foru Aldundiko kirol zuzendari eta Elgetako zinegotzia den, Iñaki Ugartebururen eskutik. Maximo Debagoieneko kirolaren inguruan lan asko egindako gizona genuen, eta guzti hori eskertzeko asmoz egin zitzaion omenaldi berezia.




DEBAGOIENKO KIROL TXAPELKETA ZIRKUITUKO AZKEN JAIA



Sariak banatu eta gero, guztiak famili argazkirako jarri ziren sariak eskutan zituztela.



Zesta punta ez da asko praktikatzen den kirola gure artean, baina saiatu ziren bertara hurbildu zirenak.



Bolotan ere aritu ziren, goizean goizetik gainera, eta ederki astindu zuten egurrezko pilota borobila.

• ZER IRUDITZEN ZAIZUE ZIRKUITUA ANTOLATZEA?



PATXI VALLEJOS |  
BERGARA

“Jende gutxi ematen du izena, nahi baino gutxiagok, behintzat, baina urtero etortzen garenok ez dugu huts egiten, eta laguntasun giro polita nabari da, urtero-urtero zirkuituan kirol ezberdinetan parte hartzen dugunon artean; eta irabazten bada hobeto”.



AMAIA ZABALETA |  
ANTZUOLA

“Kirol teknikaria naizen aldetik esan, 2005 urtean pala txapelketa ez dugula sartuko. Esan, tenisa, gora doan kirola dela parte-hartzaileei dagokienez. Nahiko pozik gaude 2004ko txapelketa-rekin, eta aurten ere jendea animatzea espero dugu”.



VALENTIN EGIDAZU |  
BERGARA

“Positibo ikusten dut orain arte kirol arloan orokorrean, Debagoiengan egindako lana. 2004ko txapelketari dagokionez, parte-hartzea ona izan da eta pozik gaude. Ea aurtengo zirkuiturako jende gehiago animatzen den kirola egitera”.



OSCAR CARRASCAL |  
ELGETA

“Elgetako kirol teknikaria naiz, eta pozik gaude 2004ko txapelketa nola joan den ikusita; parte-hartzea ona izan da, eta aurtengo zirkuituari begiratu bat emanez gero, aurrekoarekin alderatuta askorik ez dela aldatzen esan daiteke”.

2005eko zirkuitua lau kirolek osatuko dute; pala, ez dago tartean

Sariak eman eta gero, 2005eko zirkuitua aurkeztu zuten kirol teknikariek. Aurreko urtearekin alderatuz ez dago aldaketa handirik; pala txapelketa izan ezik, aurten ez dago eta. Arduradunen esanetan, beharbada badmintona sartuko da baina hori oraindik ez dago ziurtaturik. Pala ez dute txapelketan sartu, jende askorik ez baita apuntatu. Beraz, hauek dira zirkuituan egongo diren kirolak: squasha, frontenisa, tenisa eta esku pilota. Txapelketak negu, udazken eta udaberrian izango dira, eta bost herritan jokatuko dira hasierako partiduak: Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Oñatin.

Txapelketako lehen fasea otsailaren erdialdean hasiko da, eta apirila amaiera bitartean honela banatuko dira: squasha Aretxabaletan, frontenisa Arrasaten, tenisa Bergaran eta esku pilota Elgetan. Antolatzaileek espero dute jendearen parte hartzea gutxienez 2004. urtekoa bezalakoa izatea, baina jende gehiago animatzen bada hobeto.



• ADISKIDANTZAZKO PARTIDUA

# Bidasoa eta Teka Cantabria Kilometroak jaiaren alde

500 pertsona joan ziren Iturripera eta partiduaren mailarekin asko gozatu zuten

BIDASOA  
**29-22**  
TEKA CANTABRIA

**Bidasoa** | Gurutz Aginagalde, De la Haza (3), Arrieta (7), Mikel (8), Ventura (1), Akos (1), Lechte, Julen Aginagalde (1), Proznik (5), Aramburu (2), Iker Antonio, Jimenez eta Antonio.

**Teka Cantabria** | Manuel Eduardo, Marcos (1), Abel (1), Brajkovic (7), Arkaitz Vargas (1), Ben Amor (1), Alberto (1), Osorio (3), Reñones (4), Jordi, Chema (1) eta Rio (3).

**Golak:** 3-2; 4-3; 7-6; 11-7; 14-8; 14-12; 17-14; 20-17; 22-17; 25-19; 28-21; 29-22.



AITOR LIZARRALDE

Arrieta elgoibartarrak zazpi gol sartu zituen. Zentral moduan partidu asko jokatu ez arren, maila ona erakutsi zuen.

Ion Unamuno

Leintz-Gatzagakako bailaran izango den Kilometroak jaiaren alde jokatu zuten partidua Bidasoa eta Teka Cantabriak. Zaleak portatu ziren eta 500 pertsona inguru gerturatu ziren partidua ikustera. Nahiz eta Julian Ruiz eta Alberto Urdialesen taldeek entrenamendu moduan hartu parti-

dua, kalitatezko eskubaloia ikusteko aukera egon zen. Munduko txapelketa dela eta, bi taldeetan jokalarik garrantzitsu batzuk falta ziren, Stojanovic adibidez, baina jokatu zutenek besamotzak ez direla erakutsi zuten.

Bidasoako taldeak kontrolpean izan zuen partidua. Teka Cantabria sei eta hutseko defentsarekin jokatzeko hasi zen eta Bidasoa,

lehen zatia amaitzeko bost minutu faltan, sei goletako abantailarekin jarri zen. Alberto Urdialesek bost eta bateko defentsa jarri zuen eta abantaila bi goletara murriztea lortu zuen.

**JULIAN RUIZ AZKARRAGOA**

Lehen zatiaren bukaeran Bidasoak izan zuen beharakada dela eta, atsedendian ideiak argitu

zizkien Julian Ruizek jokalariei. Arrietak eta Mikelek gol mordoxka bat sartu zuten eta partidua erabaki zuten.

Azkeneko minutuetan jokalarik gazteek izan zuten jokatzeko abagunea. Horrela, partiduko azkeneko gola Venturak sartu zuen. Azken emaitzan garrantzirik ez zuen gola, baina berarendako gol oso esanguratsua.

• PARTIDU AMAIERAKO IRITZIAK



ANDONI MUJIKA |  
ARRASATE

**“Eskertzekoa da maila horretako bi talde musu truk etorri izana”**

Arizmendi Ikastolak antolatzen duen Kilometroen proiektuen koordinatzailea da Andoni. “Eskertzekoa da maila horretako bi talde musu truk etorri izana”, esan zuen Andonik. Izan ere, darabiltzan proiektuen lehen helburua ekonomikoa da.



GURUTZ AGINAGALDE |  
IRUN

**“1988an Kilometroak Irunen izan zirenean asko eskertu zen laguntza”**

Partiduaren arrazoia jakinda, gustura jokatu zuen Gurutzek. “1988an Kilometroak Irunen izan zirenean asko eskertu zen laguntza, ni ikastolan nengoen orduan. Orain ere, ahal dudan guztietan joaten naiz Ikastolen festetara”, azaldu zuen.



ANDONI ARANDO |  
ARRASATE

**“Horrelako partiduekin eskubaloia zer den ikusteko aukera izaten da”**

“Horrelako partiduekin eskubaloia zer den ikusteko aukera izaten da. Jokalari oso onak dituzte bi taldeek eta zuzen-zuzenean ikusteko aukera oso erakargarria izan da. Taldeek etortzeko erakutsi duten erraztasuna txalotzekoa da”, esan zuen.



ARKAITZ VARGAS |  
IRUN

**“Kilometroen zergatia azaldu diet taldekideei eta oso ondo iruditu zaie”**

Teka Cantabriako jokalarik gipuzkoar bakarra da Arkaitz. Horrela, informatzaile lanetan ibili da bere taldean, izan ere, hauek ez zuten Kilometroen berri: “Kilometroen zergatia azaldu diet taldekideei eta oso ondo iruditu zaie”, argitu zuen.

• 1. MAILA NAZIONALA

## Bigarren zatian galdu zuen partidua Arrikrutzek

ITE HONDARRIBIA  
**28-24**  
ARRIKRUTZ

A.G.

Lehenengo zatiaren amaieran 12-15 ageri zen markagailuan. Hala ere, bigarren zatian Hondarribiako defentsaren eta epailearen ondorioz, bederatzi gol besterik ez zuten sartu. Azkeneko asteetan baino itxura hobea eman zuten arren, esku hutsik bueltatu ziren.

Hurrengo astean Trapagaran izango du arerio Arrikrutz Oñatiko Kobakeko taldeak. Partidu garrantzitsua da eta Zubikoako zaleen laguntza behar beharrezkoa izango da.

### Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILAKO  
ESPAINIAKO LIGA

Hondarribia-Arrikrutz Oñati 28-20

SENIOR MAILAKO  
EUSKADIKO TXAPELKETA

Bergara-Escolapios 30-40

LEHEN TERRITORIALA

AGR Arrasate Atsedena

BIGAREN TERRITORIALA

Arrasate Atsedena

Aloña Mendi Atsedena

Bergara Atsedena

SENIOR MAILAKO NESKEN  
EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña Atsedena

GAZTE MAILAKO MUTILAK

Gatz Museoa Jakion Atsedena

GAZTE MAILAKO NESKEN  
EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Muskiz 25-7

GAZTE MAILAKO NESKEN  
GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Arrasate Atsedena

Bergara Atsedena

KADETE MAILAKO MUTILAK

Aloña Mendi Atsedena

Bergara Atsedena

KADETE MAILAKO NESKEN  
EUSKADIKO TXAPELKETA

Verkol Aloña-Muskiz 21-18

INFANTIL MUTILAK

Arrasate Atsedena

Aloña Mendi Atsedena

INFANTIL NESKAK

Aloña Mendi Atsedena



• LEHEN MAILA

# Maila mantentzea lortu da

*Partidu guztian markagailuan gaineratik joan ziren arrasatearrak, eta azken laurdenean jipoi galanta eman zieten Zallakoei*

MUGARRI ALKESA

## 94-72

ZALLA

**Mugarri Alkesa** | Gamarra (17), Lazpiur (8), Mallabiabarrena (13), Mikel Biain (5), Basauri, Herzog, Kintana (12), Ancin, Alarcia (12) Aranburu (3) eta Iñigo Biain (24).

**Zalla** | Sexto (15), Lara (4), Martinez (12), Mateo (10), Artigas (6), Intxaurreaga (8), San Vicente, Iker Lezama, Iñigo Lezama (10) eta Alvaro Martinez (7)

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 25-20. Bigarren laurdena 41-35. Hirugarren laurdena 67-54. Laugarren laurdena 94-72.

Jokin Etxebarria

Joan den urtean, bigarren itzulia hasitakoan ekin zioten bola-da onari Arrasateko mutilek. Eta aurtengoan ere berdina egin dute. Lau partidu jarraian irabazita daramatzate, eta zapatu honetako garaipenarekin, gainera, matematikoki maila mantentzea lortu dute. Lehen bi postuak, igo-

era faserako baliagarriak direnak, oso urrun daude, eta hauek harrapatzea ia ezinezkoa da. Baina, gutxienez, jaitsiera fasea ere ez dute jokatu arrasatearrek, eta hemendik aurrera lasaitasun osoz joka ditzakete partiduak, presiorik gabe. Eta hori normalean onerako izaten da. Beraz, azken aldi emandako jipoiak txiki gelditu daitezke. Edo erasoan horren ondo jokatzeko jarraitzen badute, 100 puntuak behin baino gehiagotan pasatu ditzakete.

**PARTIDU POLEMIKOA**

Hasiera-hasieratik jarri ziren aurretik etxeok. Nahiz eta erasoan hutsegite batzuk egin lehenengo minutuan, gutxika-gutxika partiduan sartzen joan ziren, eta erasoan, barruko jokalariekin jokatzeko, min handia egin zieten Zallakoei. Hala ere, defentsan egindako huts batzuk medio, kanpokoek markagailuan gertu mantentzea lortu zuten.

Bigarren laurdena etxeok hobeto hasi zuten. Izan ere, erasoan berdina jokatzeko jarraitzeaz gain, defentsa apur bat sendotu



JOKIN ETXEBARRIA

Zallakoen defentsak ezin izan zuen ezer egin arrasatearren kontra.

zuten, eta abantaila handitzea lortu zuten horrela. Kanpokoak hiruko jaurtiketei esker mantentzen ziren bizirik. Baina hau partiduen bigarren zatian aldatu zen.

Etxekoei kosta egin zitzaion hirugarren laurdenean sartzea. Agian kantxa aldatetarik edo, izan ere Musakolan jokatu zuten oraingoan. Baina, kanpokoek

adierazitako bi teknikari esker, berriro sartu ziren partiduan. Laugarren laurdena nahiko polemikoa izan zen. Kanpokoek abantaila jaitea ez zuten lortzen, protesten bidez etxeok partidutik atera nahi izan zituzten, baina epaileek euren lana ongi bete zuten. Eta etxeok, lasaitasunez jokatzeko, egundoko jipoi eman zieten Zallakoei.

# Epaileen lana oso eskasa izan zen

ESKORIATZA

## 68-84

BASAURI

**Eskoriatza** | Usabiaga (7), Laborda (10), Gomez, Alarcia, Sebastian, Murillo (20), Etxebarria (9), Soriano, Exposito (6), Belastegi (12), Etxebarria (4) eta Romera.

**Basauri** | Okeluri (5), Basoa (11), Marcos (4), Santos (3), Cenicerros (22), Legarreta (17), Robles, Ruiz (8), Fernandez (6) eta Garabietta (8).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 13-23. Bigarren laurdena 19-17. Hirugarren laurdena 23-20. Laugarren laurdena 68-84.

Jasone Zabala

Berez zaila den partidu batean, borrokatu beharrekoan, eta bost bosten kontra jokatzeko denean, ezin da "seigarren" jokalaria bat tartean sartu laguntzera; eta joan den zapatuan hori egin zuten epaileek etxeok taldearen kontra.

Lehen fasea amaitzeko hiru partiduren faltan, jaitsiera fasea jokatzeko sailkapenean ahalik eta goren gelditzea dute helburu, eta horrelako partiduak gogorraz izaten dira.

**HASIERATIK PRESIOA**

Rasoren neskak, hasieratik hasi ziren zela guztian presioa egiten, baina urduritasuna nagusi zen.



JASONE ZABALA

Etxekoen defentsa ahul ibili zen kanpokoek erasoko jokaldien aurrean.

Basauriok zonakako defentsan jarri ziren, eta defentsa mota honi aurre egitea asko kostatu zitzaion etxekoei: saskiratzerik ezin lortu, errebotek ezin itxi... Hirugarren laurdenean, kontra-

eraso batzuen bitartez hurbildu ziren eskoriatzarrak, baina epaileen zalantzazko erabaki pare batekin eskoriatzarrak ezinean aritu ziren, eta azkenean galdu egin zuten.

Gorabeherak

**GORA**

**Iñigo Biain**

Zapatu arratsaldean bere taldeko saskiratzaile onena izan zen, eta horretaz gain errebotek pila ere jaso zituen, bai defentsan, eta baita erasoan ere. Bere taldekideek asko jokatu zuten bai berarekin, eta baita Ander

Mallabiabarrenarekin ere. Biak jaun eta jabe izan ziren taula azpiko jokoa. Baina Oñatiarraren partidua bikaina izan zen. Defentsan sendoa, eta erasoan puntu mordoa sartzen.

**Kadete mailako Mugarri Alkesa eta Lacor**

Bi taldeek irabazi dituzte asteburu honetan euren partiduak. Eta garaipen hauen bidez igoera fasea jokatzeko sailketa dira arrasatearrak eta bergararrak. Gainera, aipatu behar da, Lacor taldekoek Aloña Mendiri irabazi ostean lortu dutela fase honetara pasatzea. Zorionak bi taldeei. Baina lanean gogor jarraitu beharko dute oraindik ere, fase hau ez da eta batera erraza izango.

**BEHERA**

**Eskoriatzako neskak**

Etxean jokatu azken partidu guztiak galdu dituzte. Batzuk zorte txarrenatik, baina beste batzuk, erraztasunez galdu dituzte, aste honetan bezala. Urte zaila da Eskoriatzako neskak; izan ere, mailaz igo dute aurtun, baina etxeok partiduak irabazi ezean, are eta zailagoa egingo zaie aurtengo denboraldia. Intxaurreagatik gotorlekua izan beharra dauka.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHEN MAILA

Mugarri Alkesa-Zalla 94-72

SENIOR MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Aloña Mendi Atsedena  
Bergara Atsedena

GAZTE MAILAKO

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Mugarri Alkesa-Ordizia 61-69  
Aloña Mendi Atsedena  
Araneta Atsedena

KADETE MAILA

Lacor Atsedena  
Aloña Mendi Atsedena  
Mugarri Alkesa Atsedena

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Colegio Basauri 68-84

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi Atsedena  
Eskoriatza Atsedena

KADETE NESKAK

Bergara Atsedena  
Eskoriatza Atsedena



**Pilota**

• SENIOR BIGARREN MAILA

# Bergararrek irabazi egin zuten hirugarren partidua

*Udaberriko txapelketan, garaipena lortu zuten urdinez jantzi ziren Herran eta Oñarrak*

Jasone Zabala

Pasa den zapatuan, Aretxabatak eta Bergarak jokatuak partiduan, bergarako bikoteak irabazi zuen 22 eta 15.

Gorritz, Uriarte eta Oion aretxabaletarrek partidu zaila ipini zieten bergararrei. Herranek eta Iñarrak, Azpeitiarrei irabazi zieten bigarren partiduan eta indartsu zeuden.

Hasiera hasieratik, parekatura joan ziren bikoteak. Lehen berdinketa binakoa izan zen, eta handik aurrera bikoteek izandako abantailak ez ziren handiak izan, eta tanto baten gora beheran egon zen beti.

**PILOTEO GOGORRA**

Pioloteoa gogorra izan zen, batez ere atzeko koadroetan, eta Herran, ederki eusten ari zen behin eta berriz aretxabaletarren pilotakadei. Iñarra aurrelaria, ahal izan zuenean, tantoa amaitzen saiatu zen.

Aretxabaletarrek, ez zien uzten markagailuan alde egiten bergararrei, eta amaiera arte



JASONE ZABALA

Partidu gogorra izan zen, eta tanto politak ere ikusi genituen.

izan genuen emozioa.

Azkenean, Bergararrak nagusitu ziren hirugarren partidu honetan, eta orain arte jokatuak hiru partiduetan bi garai-

pen eta porrot bat lortu dute. Hurrengo partiduei itxaron beharko diegu, udaberriko txapelketa honen nondik norakak jakiteko.

**Harri-jasotzaileak**



JASONE ZABALA

Jendeak ederki gozatu zuen atzo Perurena aita-semeekin.

# Perurena aita-semeen ikuskizuna San Blasen

Jasone Zabala

Bergarako San Blas auzoa jaieran murgildurik egon da asteburuan. Atzo, domeka, herri kirol erakustaldi bikaina ikusteko aukera izan zuten bertara hurbildu ziren guztiek. Eguerdialde, Perurena aita-semeek altxaldi bikainak egin zituzten pisu ezberdineko hainbat harrirekin: Inaxio semeak, bi eskuekin, 190

kiloko, 220 kiloko eta 250 kiloko harriak jaso zituen bi aldiz. Ondoren, esku batekin 190kiloko harria altxatu zuen.

Iñaki aitak, urteak pasa arren sasoiko dagoela erakutsi zuen, eta 100 kilo harri zilindrikoa 20 aldiz altxatu zuen. Amaitzeko, 111 kiloko harri borobila ere altxatu zuten biekin.

Ikuskizun bikaina beraz, bertara hurbildu ziren guztientzat.

Bertan salgai

# Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

<p><b>Antzuola:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Altzarte okindegia</li> <li>•Martin okindegia</li> </ul> <p><b>Elgeta:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Kioskoa</li> </ul> <p><b>Bergara:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Bolintxo okindegia</li> <li>•Ogizun okindegia</li> <li>•Konde okindegia</li> <li>•Olabe okindegia</li> <li>•Mizpildi okindegia</li> <li>•Plazako Kioskoa</li> <li>•Txurrerua Kioskoa</li> </ul> <p><b>Arrasate:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Eroski merkatal guneko prentsa txokoa</li> <li>•Balantzategi kioskoa</li> <li>•Portaloiko kioskoa</li> <li>•Usue paper denda</li> <li>•Bolintxo Okindegia</li> <li>•Maalako okindegia</li> <li>•Kurruxko okindegia</li> </ul>	<p><b>Aretxabaleta:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Errasti kioskoa</li> <li>•Ibarra estankoa</li> </ul> <p><b>Eskoriatza:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Dorleta liburudenda</li> </ul> <p><b>Leintz Gatzaga:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Labidea</li> </ul> <p><b>Aramaixo:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Plazako kioskoa</li> </ul> <p><b>Oñati:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>•Haritza Kioskoa</li> <li>•Ibarrondo Kioskoa</li> <li>•Eskolatxo okindegia</li> <li>•Arantxa okindegia</li> <li>•Irizar okindegia</li> <li>•Ogibarrri okindegia</li> <li>•Olakua okindegia</li> <li>•San Lorentzo okindegia</li> <li>•Errota okindegia</li> </ul>
--	---

**Areto futbola**

# Kontraerasoa golaren baliokide bihurtu zuten Aloñako jokalariek

A.G.

Joseba Zabaletak egin zuen lehen zatiko gol bakarra. Bigarren zatian, Zubiak lehenengo eta Zabaletak bigarren beste bi gol egin zituzten. Laskoraineko jokalariek ere bi gol egin zituzten eta partidua oso parekatua jarri zen.

**TXALO ZAPARRADA SERGIRI**

Kamisetatik heldu, ostikada jo, bultzada eman, denetik egin zioten Sergiri laugarren gola egin aurretik. Zubikoak txalo zaparradaz zoriondu zuen. Azken gola ere berak egin zuen. Amaieran, Aloña garaile 5-2 markagailuarekin.



AITOR LIZARRALDE

Lortutako garaipenak neke denak ahaztea ekarri zuen.



Oñatira hitzaldi bat ematera zetorrela aprobeztatu genuen Juanito Oiarzabal handiarekin egoteko. Aulki baten eserita erantzun zigun galderei. Izan ere, zutik

egoten nekatu egiten da oraindik. Luze egiten ari zaio errehabilitazio prozesua gasteztarrari, baina dagoeneko badabil pentsatzen osatutakoan zer egingo duen.

Egiteko gauza asko gelditzen zaizkiola dio, eta gertatutakoak gertatuta, familiaren laguntzarekin aurrera jarraituko du, ez zaio eta erretiratzeko ordurik heldu.

JUANITO OIARZABAL | MENDIZALEA

# "Gustatuko litzaidake azaro aldera Antartikara joatea"

Jokin Etxebarria

**Zer moduz daramazu errehabilitazio prozesua?**

Ezin dezaket esan gaizki daramadanik, aurrez esan zidatelako prozesu luzea izango zela, eta bederatzi hilabete behar izango nituela zerbait egiten hasi ahal izateko. Baina, luze egiten ari zait. Sei hilabete daramatzat dagoeneko, eta oraindik handituta dauzkate hankak. Ezkerreko oinak, gainera, arazoak ematen dizkit, eta oso luze egiten da. Ez uste oso konforme nagoenik, baina, etsi beharra daukat, badakidalako zer gertatu zaidan.

**Eta zer motatako ariketak egiten dituzu?**

Orain gehien bat gerritik gora errehabilitatzen nabil. Gerritik behera fisioterapeutarekin egiten dut lan pixka bat egunean zehar edukitzen dudana hanken handitzea apur bat jaisteko. Baina ezin dut askoz gehiago egin. Gainera nahiko erreta nabil, izan ere sei kilo hartu ditut dagoeneko, eta ezin dut ezer egin hauek kendu ahal izateko.

**Gertatu zaizun guztiaren ondoren, etorri al zaizu erretiratzeko pentsamendurik?**

Ez, ez. Horrelako gauzak gertatzen direnean onartu egin behar dira. Dena den, bakoitzak egiten duenarekin kontsekuentea izan behar du, eta nik ere onartu egin behar dut. Normala den moduan, noizbait helduko zait horrelako espedizioetara ez joateko garaia. Baina, oraindik ez da heldu garai hori. Orain gehien desiratzen dudana, datorren urtean beste zortzi milako bat egitea da.

**Zortzi milako bat 21 aldiz igo eta gero, zer gehiago falta zaizu egitea. Badaukazu proiekturik buruan?**

Oraindik gauza asko gelditzen zaizkit egiteko. Ez dira bakarrik zortzi milakoak existitzen munduan. Gauza ezberdin asko daude: zazpi milakoak, sei milakoak, zeharbideak, desertuak... Gauza asko daude, nahiz eta ni zortzi milakoetan espezializaturik nagoela ematen duen.

Eta proiektuari dagokionez, lehenengo gauza da guztiz sendatzea. Eta gero, maiatz aldera, ea Kilimanjarora joateko gai naizen. Uztaileko Nanga Parma espedizio bat prestatu ahal izango dela izan. Eta aurtengo proiektuekin amaitzeko, gustatuko litzaidake azaro aldera Antartikara joatea, bertako mendirik altuena igotzeko.

**Zer dauka zortzi milako batek Aloña Mendi edo Udalaiz bezalako mendiek ez daukatena?**

Bakoitzak sentsazio onak edozein puntutan bilatu behar ditu. Hau da, nik Aloña Mendin, edo Gorbeian, edo Aizkorrin berdin berdin disfrutatzen dut. Egia da ezberdina dela, baina garrantzitsuena mendiaz gozatzea da, bakoitzak ahal duen neurrian, eta berdin du non, Gorbeian, Aloña Mendin edo Nanga Parman.

**Ez duzu uste zortzi milakoetara igotzea gehiegi masifikatzen ari dela?**

Bai, baina mendi batzuetan bakarrik. Mendi bakan batzuk daude Everest, Shisha Pangma edo G-II bezalakoak oso masifikaturik daudenak. Eta Everest bezalako mendi batek, min handia egiten die beste mendiak, komertzializatu egin delako eta jendeak uste duelako bakarrik Everest existitzen dela. Eta zoritxarrez Everest zirko bihurtu da, eta dagoeneko mendi guztiz ahula da, erreferentzia moduan ez duena balio, eta ni umea nintzeanean zuen erromantizismoa galdu duena.

**Zein da, igo duzunetatik, mendirik zailena?**

Zailak eta konplikatua denak dira. Baina nik esango nuke hiru direla zailenak: K-2, Kanchengjunga eta Annapurna. Zortzi mila metro edukitzeaz gain, mendi oso teknikoak dira. Eta hiruretatik bat eskatuta, Kanchengjungarekin geldituko nintzateke ziur asko.

**Nola ikusten duzu gaur egungo euskal mendizaletasunaren osasuna?**

Nik uste, oso osasun ona duela. Eta gainera atzetik datorren jende guzti horri laguntza eman behar zaio, Himalaian gauza



AITOR LIZARRALDE

Juanito Oiarzabal irribarretsu agertu zen gure kamararen aurrean.

berriak egin ditzaten. Dударik gabe, orain zortzi milakoei buruz gutxiago hitz egiten da. Egon zen garai bat, nire zorterako, zortzi milakoetaz bakarrik hitz egiten zena. Baina, gaur egun, Patxi Usabiaga, Josune Bereziartu edo Pou anaiak bezalako pertsonak denon ahotan daude, eta eskalatazailerak dira. Nik uste, eskaladan osa maila altua dugula, baita-horma handietan ere, eta agian,

zortzi milakoak gehiago landu beharko lirakeke. Hauek, bide normaletik igo beharrean, gauza berriak probatzeko.

**Non zaude gusturago, Nepalen edo hitzaldiak ematen?**

Nepalen nago gusturago, noski. Baina etxean nagoenean ere gustura nago. Une bakoitzak bere xarma du. Ni denbora askoan bizi izan naiz han, eta hango kulturarekin oso identifikaturik

nago. Baina, Euskal Herrian oso baloraturik sentitzen naiz eta oso ondo pasatzen dut hemen.

**Eta familiak zer dio guzti honi buruz?**

Familiarentzat hau guztia naturala da. Gertatu dena, nire emazteak ulertzen du, bera ere mendizalea delako, eta badakielako hau nire pasioa dela. Jaki-na, bere laguntzarik gabe ezer ez litzateke berdina izango.

## 100 pertsonatik gora Juanito Oiarzabalen hitzaldian

Oñatin eman zuen hitzaldira 100 pertsona baino gehiago gerturatu ziren. Baita Juan Vallejo eta Angel Vallejo aita-eme mendizaleak ere. Bertan Juanitok *Al filo de lo imposible* programarendako erreportajea erakutsi zuen. 40 minutuko erreportaje honetan jendeak lehenengoz ikusi ahal izan zuen K-2n gertatu zitzaiena, eta oinetako behatzak nola gelditu zitzaizkion. Emanaldiaren amaieran, gustu handiz erantzun zien Juanitok oñatiarrek egindako galderei, nahiz eta ez ziren galdera gehiegi egon. Azkenean, gainera, opariak eraman zituzten txantxikuek, posterrak eta argazkiak.



**"Ezin dezaket esan gaizki daramadanik banekielako zer neukan, baina luze egiten ari zait"**

**"Zoritxarrez Everest zirko bihurtu da eta dagoeneko mendi guztiz ahula da"**



# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Zure folk taldeak dantzan jarri zituen ikusleak Bergaran egindako emanaldian | 24
- AC/DC talde mitikoaren bertsioak entzun zituzten zapatuan Th Bon Scott band taldekoek | 24

Behatzaren indarra ezagutu zuten umek Giriguai Zirko Ttipiarekin zapatuan | 24

'COCIDITO MADRILEÑO' ANTZEZLANA OÑATIN



Josu Azul Colorao irratsaioko aurkezlea Socrates Perez de Ayala Madrilgo tertulia jarraitzaileari zuzeneko elkarrizketa egiten.

AITOR LIZARRALDE

LAU EMANALDI OÑATIN | 1080 PERTSONAK IKUSI DU COCIDITO MADRILEÑO ANTZEZLANA OÑATIN, ASTEBURUAN

## Argi dago Euskal Herriak zeresan ugari ematen duela Madrileko irrati-tan

*Oñatiko publikoak barre gustura egin zuen Madrilgo sasi-kazetarietako tertulia irratsaioretan esandakoak abiapuntu hartuta antzezlariek egindako sketch eta parodiekin*

Larraitx Zeberio

Ikusmina handia zen. Javier Vizcaino kazetariaren *Cocidito madrileño* irratsaioa jende askok jarraitzen du Euskal Herrian. Bertan, Madrilgo tertulia saioetan Euskal Herria, euskaldunak edo euskarari buruz botatzen diren astakeriak jasotzen dira.

Orain, irratsaioko harribitxiak antzerkira eraman ditu Glu Glu taldeak eta ez nolana hiko aktoreak aukeratuta gainera.

### ZUZENKO IRRATSAIOA

Barikuan eta zapatuan *Azul colorao* irratsaioa Oñatitik egin zen zuzenean. 70 pertsonaia sartu zen zuzeneko emanaldian hainbat gai buruz euren iritziak

emateko. Josu aurkezleak, ordea, argi eta garbi jakinarazi zuen saioa hasi baino lehen, estudio-ko argitxo gorria piztuta zegoen bitartean entzundako esaldi guztiak hitzez hitz Madrilgo tertulia saioaren batean jasotako harribitxiak zirela. Bat baino gehiago zur eta lur gelditu zen entzundakoarekin. Eskerrak aktoreek umorea jarri zioten hainbat barrabaskeriari.

### BASAKERIAK BARRA-BARRA

Jakina denez, Madrilgo hainbat tertuliatan obsesio bihurtu dituzte Euskal Herriari buruzko hainbat gai. Ordu eta erdi irauten duen *Azul colorao* antzerki emanaldian irratsaio hauetan entzuten diren irain eta ergelkeria esangura-

### Fitxa teknikoa

#### • LEKUA

Oñatiko Santa Ana aretoa.

#### • JENDE KOPURUA

Lau emanaldi egin ziren eta denetan aretoa bete egin zen. 270 pertsona saio bakoitzeko. Guztira, 1080 ikusle.

#### • ARGIA ETA SOINUA

Soinua David Lainez eta argiak Juanjo Llorens.

#### • USTEKABEKO AKTOREAK

Antzezleek publikoko hiru pertsona igo zituzten taula gainera. Oñatiar ausartak! Gantxoak ote?

tsuenak jaso dituzte. Ikastolak, euskara, aek euskaltegia, eitb, euskal elizgizonak, Ibarretxe, Arzalluz, Madrazo, Odon Elorza, Athletic... denek ematen dute zeresana Erresumako hiriburuan.

Antzezlarien ekarpena adierazpen hauen inguruan asmatutako sketchak dira, beti ere basakeria hauek umorez hartuta, noski.

“Datorren astean sketch berriak sartuko ditugu antzezlanean, Madrilgo irratsaioretan entzundako azken barrabaskeriak jasoko ditugulako”, azaltzen zigun Toño Pinto produkzio-eragileak. “Arrakasta handiko antzerkia da hau, agian euskaldunoi gauzak umorez hartzea gustatzen zaigulako. Eskerrak”.



'COCIDITO MADRILEÑO' ANTZEZLANA OÑATIN

• ANTZEZLE TALDEA BIKAIN ARITU ZEN OÑATIN



**RAMON CASTRO.** Hauxe da *Azul Colorao* saioko aurkezlea. Bere ahots indartsuarekin zuzeneko elkarrizketak egiten ditu, baita telefono deiak artatu ere. Oñatiko publiko-arekin etengabeko hartu-emana izan zuen eta berak eraman gintuen gai batetik bestera antzeztanaren haria ez galtzeko. Ondo aritu zen. Eskarmentu handiko aktorea da.



**GALDER PEREZ.** Irratiko bekaduna, kale borrokako gaztea, euskal ezkongai gaztea, aek euskaltegiko zozketa txartelen saltzailea, gurasoekin bizi den 32 urteko mutila... pertsonaia asko egiten ditu Galderrek antzeztan honetan. Parodiak eta umorezko sketchak bikain antzeztan ditu. Arrakasta gehien izan zuena, agian, bekadunaren pertsonaia izan zen.



**GORKA AGINAGALDE.** Antzezle gazte honek bakarkako sketch ugari egin zituen Oñatin, gehien bat emanaldiaren hasieran. Umorezko sketchak ere oso ondo egiten ditu eta Xabier Arzallusen, Murtziako kamioi gidari baldar baten eta ezohiko tertulia jarraitzaile baten larruan ikusi genuen. Arrakasta gehien, agian, tertulia jarraitzaileak izan zuen.



**GURUTZE BEITIA.** Gurutze aurpegi ezaguna da. *Azul colorao* antzeztaneko emakume bakarra izanik pertsonaia ugari lantzen ditu ikuskizun honetan: aek euskaltegiko irakasle bortitza, Isabel espainol nazionalista sutsua, euskal emakume bekataria... gainerako aktoreak bezala Gurutze oso ondo aritu zen, batez ere aek-ren sketchean.



**JOSEAN DE MIGUEL.** Aktore honi, pertsonaia espainolak egitea egokitu zaio gehien bat antzeztanean. Euskal Herriko kaleetako pintadetan argazkia ateratzen duen turista andaluziarra, Francisco Manuel espainol sutsua, golf-jokalaria, semea homosexuala izateko beldurrarekin burdel batetara eramaten duen gizasemea... fin aritu zen.

'Cocidito madrileño' ikusteko hurrengo aukerak

Arrakasta handiko antzeztana da *Cocidito Madrileño*; izan ere jende askok ezagutzen du Radio Euskadin Javier Vizcaino kazetariak zuzentzen duen *Más que palabras* saioko izen bereko tartea.

Oñatin lau emanaldi eskaini dira eta denetan Santa Ana aretoa bete egin da. Hilabete aurretik saldu ziren 800 bat sarrera.

Oraindik antzeztan hau ikusi gabe daukanak, ordea, baditu bizpahiru aukera Debagoien bertan.

*Cocidito madrileño* antzeztana bi aldiz antzeztuko da, momentuz, Arrasateko Amaia antzokian. Hitzorduak martxoaren 5 eta 6rako daude lotuta.

Bergarako Novedades aretoan ere izango da Madrilgo tertulia irratsaiotetan jasotako barrabaskeriak umorez jasotzen dituen antzeztana. Hitzordua, kasu honetan, maiatzaren 6an izango da. Sarrerak dagoeneko salgai daude.

• HORRELA IKUSI DUTE COCIDITO MADRILEÑO ANTZEZLANA



JAIONE | OÑATI

"Sekulakoak botatzen dituzte Madrilén"

"Oso ikuskizun ona iruditu zait. Aktoreek oso lan ona egiten dute eta Madrilgo irratsaiotetan entzuten direnak berriz... edozer gauza esaten dute".



NAGORE ETA JON | OÑATI

"Ikuskizuna oso ona da. Lehiaketa gustatu zaigu gehien"

Nagorek ez du Javier Vizcainoren irratsaioa ezagutzen. Jonek, ordea, bai. "Ikuskizuna oso ona iruditu zaigu. Lehiaketa gustatu zaigu gehien". Jonek bere garaian irratiaren entzuten ei zituen Athletici buruz Madrilén botatzen dituztenak".



ARANTXA | OÑATI

"Ez dut sekula irratsaioa entzun"

"Lagun batek gonbidatuta etorri naiz baina irratsaioa ez dut sekula entzun. Atera bezain laster erosi genituen sarrerak. Polemika sortu du eta hemen gara".



AINHOA | OÑATI

"Barrabaskeria asko entzun ditut gaur"

"Ondo pasa dut. Barre asko egin dut ikuskizunarekin. Lehiaketa asko gustatu zait. Barrabaskeria asko entzun ditut gaur, baina gutxi ziren berriak".



IRAIA ETA OIHANE | OÑATI

"Ez genuen uste hainbeste astakeria bota zitekeenik"

"Obra ona da eta Gurutze Beitia aktorea bereziki ona iruditu zaigu. Ikastolari buruz entzun ditugunak lehenagotik ere ezagutzen genituen, baina ez genuen pentsatzen Madrilén guri buruz hainbeste astakeria botatzen zutenik".



FOLK MUSIKA | ZURE TALDEA

## Zure taldearen doinu herrikoiek dantzan jarri zituzten Pol-Pol tabernan batutakoak

**Non.** Bergarako Pol-Pol taberna.  
**Zenbat jende.** Taberna beteta.  
**Iraupena.** Bi ordu inguru.

M.B.

Ez da oso erraza izaten, baina Zure taldekoek lortu egin zuten: jendeak abestu eta dantza egin zuen egubakoitz gauean, Santa Ageda bezpera, Bergaran egin zuten kontzertuan. Pol-Pol tabernan izan zen emanaldia eta bukaera arte beteta egon zen. Txalaparta doinuekin ekin zioten emanaldiari 24:00ak pasatxo zirela, han batutakoak kontzertua hastera zihola ohartarazi nahi izan bagintuzte bezala. Horren ondotik, eskal musika herrikoiaz gozatu genuen ia bi orduz.

Horixe da, hain justu, Zure taldearen oinarria: folk musika. Boskoteak Euskal Herriko hainbat instrumentu erabiltzen ditu, txalaparta, trikitixa, alboka eta panderoa, esaterako, baina modernoagoekin ere uztartzen dituzte, hala nola, gitarra, baxua, kutxa...



Musikariak, berriz, eskarmentu handikoak dira, eta nabaritu zitzaizen emanaldian; izan ere, Urgabe, Trikitizio, Arakajun eta Kepa Junkera bezalako proiektuetan parte hartu izan dute.

**DANTZARAKO PRESTUTASUNA**  
Giro polita sortu zuten tabernan. Dantzarako aproposak diren hainbat doinu jo zituzten eta

entzuleen prestutasuna ere azpimarratzekoa da: txaloz lagundu zituzten hainbat doinu, abestu ere egin zuten eta baita dantza ere.

Aipatzekoa da, bestalde, baserriarrez jantzita Pol-Polera urreratu zen lagun taldea. Santa Ageda eskean jardun eta afaldu ostean iritsi ziren. Giroak gora egin zuten Zure taldekoen doinuekin abesten hasi zirenean.



GLAM ETA ROCK | BERGARAKO PLAZAN

## Begiak itxita hala iruditu arren, ez zen AC/DC

A.G.

Zapatu gauean Inauteri kontzertua izan zen Bergarako San Martin plazan. Bonberenea faktoriaiko Lobo Electrico talde tolosarra eta The Bon Scott Band kataluniarak ikusteko aukera izan genuen.

Hotz egiten zuen, baina ez zen eragozpen izan kontzertuan batu zen jende andanarendako. Tolosarrek jo zuten lehendabizi eta euren *glam* doinuek ikusleen barruak epeltzen lagundu zuten.

Atsedenen ondoren –bi taldeen artean mozorro lehiaketako sariak banatu zituzten– AC/DCren abesti ezagunenek hartu zuten plaza. Izan ere, horixe egiten dute The Bon Scott Band taldekoek: AC/DCren bertsoiak. Angus Young bera ere eszenatikian zegoela zirudien, gitarra jotzailea haren antzera jantzita zegoen eta. *Hells to Bell* kantua jo zuten lehenik. Ondoren beste eza-gun asko; bukatzeko *Highway to Hell*, entzuleek hala eskatuta.



KONTZERTUA | ARRASATEKO GAZTETXEKO DOINU GOGORRAK

Begarako Aby Kem, Eskoriatzako Lukas Prest eta Oñatiko Potemkin taldeek jardun zuten Arrasateko Gaztetxean, joan zen egubakoitzean. Ez zen mozrorrik ikusi, baina ikuskizunik izan zen. Potemkinekoek lurrean bueltaka amaitu zuten; antza, Danbaka musika lehiaketako finalean erakutsi zuten zuzenekoak ohiko bihurtu dute euren zuzenekoetan. Aby Kem taldekoek aurrekoek baino doinu gogorragoak eskaini zituzten eta Lukas Prest taldekoek, berriz, bertsoien alde egin zuten. | M.D.



ZIRKOA | 'GIRIGUAI' ZIRKO TTIPIA ARRASATEN IZAN ZEN

Amaia antzokian izan ziren *Giriguai* Zirko Ttipiko kideak, zapatu arratsaldean. Atzamar magikoak hasi zuen saioa, umeei prest zeuden galdetu ostean. Amaiara batutako ehun neskato-mutikoak baietz esan zioten Zeleninari, Pibo eta Kilikor pailazoak zain zituztela. Virginia Imazek sortutako ikuskizun polita eskaini zuen Zirko Ttipiko taldeak. Sormenari lekua egiteak merezi duela eta umeek, eta ez hain umeek ere, horretarako ahalegina egin behar dutela erakutsi zuten Zirko Ttipia osatzen dutenek. | M.D.

**LOIOLA KLINIKA****BEGIETAKO KLINIKA****Begietako mikrokirurgia:****Kataratak:** Miopia / Hipermetropia.**Bitreo-erretinako gaixotasuna:** Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatuManuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91  
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79





**2<sup>o</sup> MERKEALDIA**

**%30 %40**

**%50<sup>EKO</sup>**

**DESKONTUAK**

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE Garibai Etorbidea, 2-6

KIROLA ZEURE ESKURA



Koro Saenz organo jotzaile donostiarrak itxi zuen zapatu iluntzean Organo Erromantikoaren Nazioarteko VI. zikloa. Miguel Etxepare tronpeta jotzailearekin

batera aritu zen, San Pedro parrokian. Aurretik Bergarako Stoltz-Frères organoari pare bat bisita egin zizkion. Oso emakume gutxi ikusten da organoa jotzen, baina

Korok bete egin du bere txikitako ametsa. Bere parrokiako organo jotzailea da egun, eta inork baino hobeto ezagutzen du bertako Cavaillé-Coll organoa.

KORO SAENZ | ORGANO JOTZAILEA

## “Ezkontzetan, Elvis-en eta ‘La Misión’ filmeko melodiak eskatzen dizkidate, eta jo egiten ditut!”

Larraitz Zeberio

**Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloak sei urte bete ditu. Publikoaren onarpena lortu du?**

Baietz esango nuke. Bergaran, gainera, oso organo ona duzue, eta benetan merezi du horrelako ziklo bat antolatzea.

**Horren ona da Bergarako organoa?**

Oso ona. Stoltz-Frères (1889) bat da eta ez da mekanikoa. Walker izeneko sistema du eta horrek instrumentua bigundu egiten du. Organoa ez da hain gogorra eta jotzaileak ez du horrenbesteko indarrik egin behar. Jotzeko askoz errazagoa da.

**Zergatik da erromantikoa?**

XVII. mendeko organoa da eta konpositore erromantikoek musika jotzeko dago bereziki pentsatuta. Bachen konposizioak jo daitezke organo horiekin, baina ez dira estilo horretarako aproposenak. Nik Donostiako San Vicente parrokian organo erromantikoa jotzen dut. Cavaillé Coll etxekoa da, baina hura ere XVII. mendekoa da.

**Organo jotzaileak edozein organo jotzeko gauza zarete?**

Organo guztiak desberdinak dira, ez daude bi berdinak munduan. Azkoitia, Azpeitia, Bergara eta Loiolakoa erromantikoak dira denak, baina desberdinak gauza askotan. Txirrindulariak bezala pista prestatzera joan behar izaten dugu organo jotzaileok. Beti joaten gara alde aurretik erregistroak nola jarri erabakitzeko. Piezak banan-banan egokitu behar ditugu, gainera.

**Organoa, bestalde, ez dago etxera eramaterik, ezta?**

Ez. Azpeitikoa, Azkoitikoa, Loiolakoa, Bergarakoa... Lau-

rak Stoltz-Frères markakoak dira, baina laurak desberdinak. Erregistroak, loturak, mihiak... Ez dugu, gainera, organoa etxean entseatzeko aukerarik. Elizara joan behar dugu nahi eta nahi ez. Nik normalean bi bat saio egiten ditut jo beharreko organoarekin, kontzertua eskaini baino lehen.

**Kontzertu bakoitza abentura bat da, beraz?**

Bete-betean jo duzu! Tronpeta jotzailearekin entseatu nuenean harrিতa zegoen. “Baina zer da hau!”, zioen behin eta berriz. Zenbat eta organo handiagoa, orduan eta zailagoa da trikimailuak hartzea, gainera. Bergarako organoak, esaterako, hiru teklatu dauzka eta gaintetik pedalierra.

**Nondik nora hasi zinen organoa jotzen?**

Gure aita Pepe Andoain akordeoi jotzailea zen. Harekin hasi

nintzen musika ikasten. San Vicenteko parrokiara joaten ginen mezetara familia osoa, eta organoak beti eman izan dit atentzioa. Piano ikasketak amaitu nituenean organoa nuen buruan oraindik ere, eta ikasketak egiteko erabakia hartu nuen. Gipuzkoan organo jotzaile lanetan hasi den lehen emakumea naiz. Hala, 16 urterekin amaitu nituen piano ikasketak, eta 21ekin, berriz, organo ikasketak. “Mukizu hau nora doa!”, esaten zidaten han eta hemen, organoa jotzera heldu nintzela jakiten zutenean.

**Zailtasunik nabaritu duzu emakume izateagatik?**


Tomas de Arbizurekin hasi nintzen, eta lehen uneetan zerbait aipatu zidan, baina laster ikusi zuen benetako zaletasuna nuela. Urte batean bi kurtso gainditu nituen, eta handik aurrera asko lagundu dit. Beti esan izan dit zaila izango zela, baina ondoren izan dut beti. Jendea harritu egiten da oraindik ere, baina egia da emakume gutxi ikusten dela zeregin hauetan. Egon, ordea, badago organoa jotzen duen emakumerik. Loiolan, esaterako, Mari Carmen Agirre ari da, eta oso ondo, gainera.

**Zure parrokiako organo jotzailea zara, ezta?**

Bai. Hori zen nire ametsa txikitant, eta lortu dut. Nire parrokoa Angel Garitano da, eta musika asko gustatzen zaio. Meza amaitzerakoan bertaratutakoek txalotu egiten naute. Hortaz, zer gehiago eska dezaket? Oso pozik nago.

**Bergaran jendeak organo jotzaile bertatik bertara ikusteko aukera du. Ideia ona da hori?**

Bergaran pantaila jartzen da eta jendeak musikariaren ondo-



AITOR LIZARRALDE

Koro Saenz Donostiako San Vicente parrokiako organo jotzailea da.

an egoteko aukera dauka. Batzuk pantailarekin distraitu egiten ei dira. Niri, ordea, organo jotzaile ikusteko aukera ematea oso garrantzitsua iruditzen zait. Jendeak erregistroak, pedalierra eta loturak mugitzen ikusten gaituenean harritu egiten da.

**Denetarikoa musika jo daiteke organoarekin?**

Azkenaldian ezkongaiak Elvis Presleyren kantuak eskatzen dizkidate, baita *La Misión* filmeko melodia ere. Ez dut rock doinurik jotzen mezetan, baina bai pieza melodikoak. Zergatik ez?

### Tronpeta hotsez lagunduta amaitu da Bergarako Organo erromantikoaren VI. zikloa

Coro Saenz donostiarra izan da Organo Erromantikoaren Nazioarteko VI. zikloan aritu den azkenengo organo jotzailea. Musikari bikain honek beste musikari bikain baten laguntza izan zuen ziklo amaierako emanaldian: Migel Etxepare tronpeta jotzailea, Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren tronpeta bakarlarria.

Ordubeteko saioa eskaini zuten; elkarrekin obra barrokoak jo zituzten eta organoarekin XIX. mendeko obra erromantikoak jo zituen Saenzek.

Emanaldi “zoragarria” antolatzaileren esanetan, San Pedro elizakoa. Bestalde, entzuleek parrokiari

jarritako pantaila erraldoian jarraitu ahal izan zuten azkeneko emanaldi hori, aurrekoak bezala. Jendeak ere ondo erantzun zuen eta zikloak heldutasuna lortu duela ikusi da. Antolatzaileak ere gustura agertu dira publikoaren erantzunarekin eta hurrengo urterako gauza berriren bat egingo dutela iragarri dute: “Hasi gara, dagoeneko, datorren urtekoa prestatzen”.

Bestalde, abuztuan, Donostiako Musika Hamabostaldian egiten den organo erromantikoaren ikastaroen parte hartuko duten ikasleek Bergara bisitatuko dute eta kontzertua eskainiko dute San Pedro elizan.





## Umeendako lau ikuskizun antolatu dituzte ibarreko hiru herritan

*Haur antzerki eta ikuskizunak eta pailazoaren saioak izango dira Oñatin, Arrasaten eta Elgetan bihar eta asteburuan*

Leire Kortabarria

Umeek primeran pasatzeko hainbat aukera izango dituzte datozen egunotan. Izan ere, umeendako ikuskizunak antolatu dituzte zenbait herritan.

Bihar, martitzena, otsailak 8, bi ikuskizun izango dira. Alde batetik, Arrasateko Amaia Udal Antzokian, *Betizuk izar artean* ikuskizunaz gozatzeko modua izango da, 17:00etan, udalak antolatuta. Ordu berean, baina Oñatin, Potxin eta Patxin pailazoek arratsalde parte alaituko dute. Zubikoako pilotalekuan egingo dute emanaldia, 17:00etan, udalaren eskutik. Sarrerak salgai daude kultura etxean 3 eurotan; txar-

teldegian erosiz gero, 4 eurotan salduko dituzte.

### ZAPATUAN, BESTE BI

Oñatiko umeak ez dira hitzordu faltan, izan ere, zapatuan, otsailak 12, euren moduko beste emanaldi bat izango da. Hain zuzen, Behi Bi's taldeak *Ni, arratoi* antzezlan egingo du Santa Ana antzokian, 17:00etan, Errekalde Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta. Sarrerak kultura etxean daude salgai, 2 eurotan.

Egun berean, zapatuan, Elgetako Espaloia kafe antzokiak beste antzezlan bat hartuko du: hain zuzen, Markelín antzerki taldeak *Igandetan, piratek jai* lana plazaratuko du 17:00etan. Emanaldi hori Elgetako Udalak antolatu du.

### ELORRION ERE BAI

Elorrioko Arriola kultura aretoak ere umeendako antzezlan bat antolatu du, Aratusteak direla eta: bihar, martitzena, Panta Rhei taldeak *Alaia* izeneko lana eskainiko du areto horretan, 11:00etan. 5 urteko mutiko bat da protagonista.

## Labur

### Doako zinema emanaldiak izango dira Aramaion eta Bergaran

Eguenean, hilak 10, Bergarako Go Jam aretoko zineklub zikloaren barne, Alejandro Amenabarren *Tesis* filma emango dute, 21:00etan. Ohi bezala, sarrera doan izango da. Hileko zinekluba bukatzeko, *Casablanca* klasikoa emango dute datorren astean.

Bestetik, egubakoitzean, hilak 11, *Whale Rider* filma ikusteko aukera izango da Aramaioko kultura etxean, 22:30ean, doan hori ere; izan ere, urtebete betetzen da Aramaioko zinema saioak hasi zituztenetik, eta hori ospatzeko modua da doako sarrera.

### Josu Okina bergararrak margo erakusketa zabalduko du asteon

Josu Okina margolari bergararrak erakusketa zabalduko du hilaren 10ean, eguena, Oñatiko kultura etxean. Otsailaren 20ra bitartean izango da zabalik, eguenero, 18:30-20:30. Paisaiak, natura hilak... lantzen ditu; batik batik, oliotan.



### Baserriaren gaineko hitzaldia eta irteera izango dira Oñatin

*Baserriko bizimodua eta lanabesak* delako hitzaldia egingo dute Natur Eskolako arduradunek etzi, eguaztena, Oñatiko kultura etxean, 18:30ean, Errekalde Herri Eskolak antolatuta.

Gai beraren inguruan beste ekintza bat ere deitu dute: hain zuzen ere, domekan, otsailaren 13an, gai horren inguruko irteera egingo dute. Errekalde Herri Eskolatik abiatuko da taldea goizeko hamarretan. Herritar guztiok daude ekintzotan parte hartza gonbidatuta.

## Hitzorduak



### KILOMETROAK 2005EN ALDEKO KONTZERTUA IZANGO DA BARIKUAN |

Danbaka lehiaketara aurkeztu ziren hiru taldek joko dute Elgetan

Kilometroak 2005 jaialdiaren aldeko kontzertua izango da egubakoitzean, otsailak 11. Hain zuzen, joan den astean zen egitekoa kontzertua, baina, elurra zela-eta, atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek, Goienak eta Kilometroak 2005ek. Azkenean, emanaldia hilaren 11n izango da, Elgetako

Espaloia antzokian, 22:30ean, eta honakoek joko dute: Dolce Vita (Arrasate; irudian), Azkaiter Pelox (Bergara) eta Lukas Prest (Eskoriatza). Sarrera 3 euro da, eta dirua Kilometroendako izango da. Bigarren kontzertu bat izango da martxoaren 11n, hura ere Danbakara aurkeztu ziren taldeekin.

### ANTZERKIA |

• *Stop al pánico* antzezlan zapatuan Bergaran

Otsailaren 12an egingo du emanaldia Latirili antzerki taldeak Bergarako Zabalotegi aretoan, 20:30ean.

### MUSIKA |

• Lau talderen emanaldia egubakoitzean Jam aretoan

Kreator, Ektomorf, Dark Tranquillity eta Hatesphere taldeek joko dute egubakoitzean, hilak 11, Jam aretoan, 20:30ean. 20 euro da sarrera, bai alde zuzenetik, bai txarteldegian ere.

• *Disko jartzaileen emanaldia izango da zapatuan*

DJ Ata eta Alain & Kaiet disko jartzaileak arituko dira zapatuan, hilak 12, Go Jam aretoan, 01:00etan. Sarrera eta edaria, 10 euro.

### IKASTAROAK |

• *Gazteendako hiru ikastarorako izenemate epea*

Argazkigintza digitala, txalaparta eta alboka ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Gazte Sailak. Izenemate Gazte Bulegoan egin behar da lehenbailehen, leku kopuru mugatua dago eta. 20 euro da matrikula; 12, berriz, langabe eta ikasleendako. Gazte Bulegoko telefono zenbakia hauxe duzue: 943 77 00 65.

### ZINEMA |

• *El maquinista* filma emango dute Oñatin eta Bergaran

Kultura etxeko zinema aretoan izango da Oñatiko emanaldia gaur, astelehena, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da. Bergarako saioa eguenean, hilak 10, izango da, zineklub emanaldian, 20:00etan.

• *Ocean's twelve* filma emango dute Arrasaten

Amaia antzokian izango da emanaldia, 19:30ean. Ikuslearen eguna da gaur, astelehena, eta sarrera 3 euro da.

• *Obsesión* film ikusteko aukera Bergaran

Novedades aretoan izango da emanaldia gaur, astelehena, 19:30ean. Ikuslearen eguna denez, 3 euro da sarrera.

• *María, llena eres de gracia* filma emango dute Bergaran

Eguenean, otsailak 10, izango da, 20:00etan, Novedades aretoan, zineklub saioan. Sarrera da 4 euro.

• *Contra la pared* filma emango dute Arrasaten

Eguenean, hilak 10, emango dute film hori zineklub saioan, Amaia Udal Antzokian, 20:30ean. 4 euro da.

• *La gran seducción* filma emango dute Oñatin

Kultura etxeko zinema aretoan izango da emanaldia eguenean, hilak 10, 20:00etan. Zineklub saioa da.

• *Monster* filma emango dute

Elgetan etzi, eguaztena Espaloia kafe antzokian izango da emanaldia, 21:30ean.

• *El enviado* filmaren emanaldia Antzuolan

Otsailaren 11n, egubakoitzean, emango dute film hori Olaran etxean, 22:00etan. 2 euro da.

### DEIAK |

• *Koadriken Aratusteetako argazkiak, Nahikari tabernan*

Bergarako taberna horretan Aratuste zapatuan ateratako argazkiak eskatzeko aukera dago, tabernara bertara joan da edo [www.nahikari.com](http://www.nahikari.com) webgunean.

### LEHIAKETAK |

• *Emakumearen Egunean kartela aukeratzeko lehiaketa*

Martxoaren 8ko kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du Arrasateko Udal Emakume Sailak. Leloa da *Martxoak 8: Arrasaten eta Munduan*. Lanak entregatu behar dira otsailaren 16a baino lehen. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 41 39 telefono zenbakira.

• *Literatura lehiaketa deitu du Kilometroak 2005ek*

14 urtetik gorakoek parte har dezakete. Fernando Morillok hasitako nobela bat bukatzean datza. Hasiara [www.kilometroak.com](http://www.kilometroak.com) webgunean dago, baita oinarriak ere.



**Zorion agurrak**



ESKORIATZA  
**Marisa Isasmendi**  
Otsailaren 2an, 55 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Arantazu Ginart**  
Otsailaren 3an, 23 urte. Zorionak! Etxekoak eta lagunak.



ARRASATE  
**Anartz Eraña**  
Otsailaren 3an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat! Familiakoak.



ARRASATE  
**Naia Ijurra**  
Otsailaren 8an, 4 urte. Zorionak! Izar, Aitor, Iosu eta Eider.



ARRASATE  
**Eneko Carrero**  
Otsailaren 4an, 2 urte. Zorionak! Familia guzti-guztiaren partetik.



ARRASATE  
**Iker Letona**  
Otsailaren 5ean, urtebetetzea. Zorionak! Amama Mila.



ARRASATE  
**Garazi Mujika**  
Otsailaren 9an, 15 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ARRASATE  
**Maddi Arlanzon**  
Otsailaren 9an, urtebete. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ARRASATE  
**Naiara Canelo**  
Otsailaren 9an, 6 urte. Zorionak! Familia eta Eneko anaia.



ARRASATE  
**Garazi Iturbe**  
Otsailaren 9an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat. Unax, Danel eta Elene.



ARRASATE  
**Judit Uribarren**  
Otsailaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Nerea eta Aitor.



ARRASATE  
**Markel Elorza**  
Urtarrilaren 23an, 9 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



BERGARA  
**Ekaitz Irazola**  
Otsailaren 4an, 11 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Maddi Basterra**  
Otsailaren 8an, 6 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta Olatz.



BERGARA  
**Joseba Carnicero**  
Otsailaren 6an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Miren Carnicero**  
Otsailaren 6an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Gorka Kortabarria**  
Otsailaren 7an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA  
**Miren Ignacia**  
Otsailaren 9an, 8 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



BERGARA  
**Andoni Gallastegi**  
Otsailaren 7an, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Gurasoak.



BERGARA  
**Mikel Mengual**  
Otsailaren 9an, 10 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



ESKORIATZA  
**Jone Isturiz**  
Otsailaren 4an, 4 urte. Zorionak! Aita, ama eta Aitziberren partez.



ARETXABALETA  
**Ainara Zugasti**  
Otsailaren 4an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Etxekoak.



ARETXABALETA  
**Joanes Sarasua**  
Otsailaren 4an, 5 urte. Zorionak! Danel, gurasoak, Asterix eta Obelix.



ARAMAIO  
**Rakel Perez**  
Otsailaren 8an, urtebetetzea. Zorionak eta muxu handi bat! Lagunak.



**Jaiotakoak**



**Aritz Murua Txintxurreta**  
Oñati • 3,030 Kg. Urtarrilak 29. Gurasoak: Juan Antonio eta M<sup>a</sup> Jose (Oñati). Aroa ahizpa eta Mikel eta Maddalen lehengusuak.



**Ayelen Edroso Gutierrez**  
Bergara • 3,200 Kg. Urtarrilak 31. Gurasoak: Jesus eta Isabel (Bergara). Argazkian: Ayelen lagun eta etxekoekin.



**Nikole Gonzalez Altuna**  
Aretxabaleta • 3,000 Kg. Urtarrilak 31. Gurasoak: Aurelio eta (Aldoain) eta M<sup>a</sup> Jose (Aretxabaleta). Argazkian: Anai-arrebekin.



**Joseba Garica Blanco**  
Bergara • 2,800 Kg. Urtarrilak 31. Gurasoak: Andoni (Arrasate) eta Sara (Gatzaga). Argazkian: Carmen amamarekin.



**Garikoitz Arejola Uriarte**  
Aramaio • 3,250 Kg. Urtarrilak 31. Gurasoak: Jon (Aramaio) eta Saioa (Arrasate). Argazkian: Blanki amamarekin.



**Malen Garitano Muñoz**  
Bergara • 3,710 Kg. Otsailak 1. Gurasoak: Aitor eta Jaione (Bergara). Argazkian: Malen amaren besoetan.



**Mikel Roldan Guirao**  
Aretxabaleta • 3,450 Kg. Otsailak 2. Gurasoak: Alberto (Aretxabaleta) eta Marta (Eskoriatza). Argazkian: Aitarekin.



**Odei Murgitu Rodriguez**  
Bergara • 3,860 Kg. Otsailak 5. Gurasoak: Pito (Arrasate) eta Maider (Bergara). Argazkian: Odei kuman lo.

**Hildakoak**

**Felipe Jausoro Galdos**  
Aretxabaletan, otsailaren 4an. 89 urte.

**Jose Antonio Alvarez Etxeberria**  
Arrasaten, otsailaren 4an.

**ESKELAK**  
ASTELEHENKO GOIENKARIAN

82 euro  
**943 76 92 71**

**sms mezua**

- Zapatu gauean Bergarako mozerro lehiaketan ikusi nuen harriketarra ezagutu nahiko nuke! Msdez, bidali sms bat, bihotza!
- Aretxabaletako Gladiator Clubeko Russel Crow ezagutu gurako nuke. Non aurkitu zaitzaketa astean zehar? Zureak bai musku-luak eta ez Russelenak! Ai, ama!
- Realak berdindu zuen. Galtzea baino hobea! Hala ta be, zenbat zale gutxiago egon zen Anoetan? Zer egin beharko genuke?
- Aupa, Reala! Jarraitu saiatzen! Lortuko dugu.
- Arteta bidali dugu; orain Realak konponduko ote ditu bere arazo guztiak? Eta ez bakarrik ekonomikoak!

**Baita SMS bidez ere!**

Bidali mezua:  
**gnkzorion [laga tartea] [mezua] 7744 zenbakira.**

Hurrengo Asteleheneko Goienkaria-n irakurri ahal izango du berak zure mezua...

SMSaren kostua 0,90 euro+BEZa



# Aurrezki Gorakorra

EUSKADIKO KUTXA

Bosgarren urtean

**%4,75**

Utzi interesei  
goraino heltzen

Laugarren urtean

**%2,75**

Hirugarren urtean

**%2,50**

Bigarren urtean

**%2,25**

Lehen urtean

**%2,00**

**%  
UTB 2,70**

5 URTERAKO GORDAILUA  
3.000 EUROTIK GORA  
ERABILGARRIA



**Gaur irratian**

**Arrasate Irratia**

FM 107.7

'Igo Autobusera' | 09:35

**Ion Agirre presoa**

Ion Agirre presoaren aldeko manifestazioa izan zen zapatuan Arrasaten, haren alde sortu berri duten taldeak deituta. Agerraldiaren balorazioa egiteko, Enrike Letona taldeko kidearekin berba egingo dute. Horrez gain, inauteriek geurean laga duten arrastoaren gaineko errepaso zabalera ere egingo dute.

**Oñati Irratia**

FM 107.4

'Neguko programazioa' | 12:15

**Aizkorri-Aratz parke naturalaren gainean**

Aizkorri-Aratz parke naturalaren gainean erreportaje zabala egingo dute. Dagoeneko, horren aldeko hainbat pauso eman dituzte, eta Diputazioko ordezkariak azalpenak ere jaso dituzte. Horrez gain, agenda, kirolak, berriak...

**Loiola Irratia**

FM 99.8

'Muxutruk' | 11:00

**Eguneko albisteei gainbegiratu sakona**

**Euskadi Irratia**

FM 104.4

'Faktoria' | 09:00

**Jarrai-Haika-Segi auzia eta etorkinak, tertulian**

**Radio Euskadi**

FM 98.2

'Bulevar' | 11:10

**Bankuko txartelekin egindako iruzurak**

**Gaur telebistan**

**GOITB**



**Loli Astoreka 'Ilunpean' saioan**

14:45 Oihana Elortza kazetariak Loli Astoreka aktore ezaguna elkarrizketatuko du *Ilunpean* saioan.

13:45 Emisio hasiera. 13:50 Marrazki bizidunak: *Fernando Amezketarra*. Pertsonaia horren gorabeherak kontatzen dituzten marrazki bizidunak. 14:10 Marrazki bizidunak. *Lazkao Txiki*. 14:15 *Berriak*. Gorka Etxabek gidatutako albistegia. 14:45 *Ilunpean*. Loli Astoreka izango da Oihana Elorzaren gonbidatua. 15:15 *Gure lanbide zaharrak*. 15:45 *Berriak*. Errepikapena. 16:15 *Klip@*. Musika taldeen bideoklipak.

19:30 Emisio hasiera. 19:35 *Gaurkoak*. 19:45 *Klip@*. 20:00 *Berriak*. Deiane Arrietak aurkeztutako albistegia. 20:30 Marrazki bizidunak. 21:00 *Harmailatik*. Julen Iriondok gidatutako kirol saioa. 22:00 *Berriak*. Deiane Arrietak asteburuak eta egunak eman dituen albistek laburbilduko ditu. 22:30 *Harmailatik*. Kirol saioaren errepikapena. 23:30 *Gaurkoak*. Egunak emandako albistek izenburuetan.

**ETB 1**



**Sketch arrakastatsuak, 'Ero eta Bero'-n**

23:40 Atzerriko eta hemengo sketch arrakastatsuak batzen dituzte, familia osoa barrez lehertzen jartzen dutenak.

07:00 Tik-Tak circus. 07:30 Betizu. *Doug, Hartz txiki, Doremiren magia, Sorgin asper-tua eta Euli ipuinak*. 09:05 E-klipse@. 09:25 Elkartasunaren bideak. 09:55 Amama sukaldari. 10:10 Bidaide. 11:55 Bertatik bertara. 12:25 Hitzetik hortzera. 13:05 Barne barne-tik. *Ormaiztegi*. 13:30 Betizu. *Shere-zade printzesa*. 14:00 Gaur egun 1. 14:40 Postdata. 14:45 Eguraldia. 14:50 Hasiberriak. 15:20 Bidaide. *Naturako indarraketa Paradisu biziak*. 17:05 Sustraiak. 17:35 E-klipse@. 18:00 Iparaldearen orena. 18:05 Betizu. *Bee-kerekeak, Garfield eta lagunak, Doraemon, Zuzen eta Shin Chan*. 20:20 Eguraldia. 20:28 Gaur egun. 21:50 Eguraldia. 21:40 Goenkale. 22:20 Ze kosmopolita. 23:40 Ero eta bero. 00:35 Postdata. 00:40 Teknopolis. 01:10 Egi bidean.

**ETB 2**



**'El diván de Julian'-en arrakasta**

00:55 *Vaya Semanita* saioari esker ezagun egin den Julian Azkarate argentinarrak *El diván de Julian* aurkezten du.

07:10 Del país de los vascos. Koldo San Sebastianekin. *Siete mares*. 07:35 Rutas de solidaridad. *Colombia: el país de la guerra*. 08:10 Los hombres de Harrelson. *Dragones y lechuzas*. 09:00 Forum. David Barberorekin. 09:30 El punto. Juan Luis Bikuñarekin. 10:20 Cosas de casa. *Drinking and jiving*. 11:10 Stargate. *La luz*. 12:15 Se ha escrito un crimen. *Asesinato en clave menor*. 13:55 Date el bote. Carlos Soberarekin. 14:58 Teleberri 1. Juan Carlos Etxeberria eta Estibaliz Ruiz de Azua. 15:55 Eguraldia. Ana Urrutiarekin. 16:00 Pasalo. Adela Gonzalez eta Iñaki Lopezekin. 18:20 Siempre cine. Zehaztu bariko filma. 20:10 Esta es mi gente. Klaudio Landarekin. 20:58 Teleberri 2. Julio Ibarrearekin. 21:50 Eguraldia. 21:55 El conquistador del fin del mundo. 00:00 El día en imágenes. 00:00 El diván de Julian. 00:05 El diván de Julian.

**TVE 1**



**'Cruz y raya.com' saioko esketxak**

23:00 Cruz y Raya umorista bikoteak astero umorezko saio berezia egingo dute. Gonbidatuak ekartzen dituzte.

06:00 Canal24 horas. 07:00 Telediario matinal. Igor Gomezekin eta Susana Rozarekin. 09:00 Los desayunos de TVE. Pepa Buenorekin. 10:15 Saber vivir. 11:15 Por la mañana. Elkarrizketak, lehiaketak eta bestelakoak egiten dituzten magazina. 14:00 Informativo territorial. 14:30 Corazón de invierno. Txutxumutxuen gaineko saioa Anne Igartibururekin. 15:00 Telediario 1. 15:55 El tiempo. 16:00 Obsesión. Telesaila. 17:00 Te voy a enseñar a querer. 18:00 Smalville. 19:15 Esto es vida. 20:00 Gente. 21:00 Telediario 2. 21:55 El tiempo. 22:00 Splunge. Florentino Fernandezek gidatutako umorezko saioa. Pertsonai ezagunak elkarrizketatuko dituzte. 23:00 Cruz y raya.com. Errepikapena. 23:40 59 segundos. 01:30 Telediario 3. 02:00 Deporte.es. 02:30 El ala oeste de la Casa Blanca. 03:30 Canal24 horas.

**La 2**



**Txirringularitza, 'Vuelta a Mallorca'-n**

16:45 La 2-ek Mallorcako birako irudiak emango ditu zuzen-zuzenean. Port D'Alcudia-Port D'Alcudia etapa izango da.

07:30 Los Lunnis. *Tom, Aventuras en pañales eta Tweenies*. 09:30 Aquí hay trabajo. 10:00 La aventura del saber. 11:00 La botica de la abuela. 11:15 España.es. 13:00 Los Lunnis. *Digimon, Artur, Los Lunnis eta Los minimonstruos*. 15:15 Saber y ganar. 15:45 Grandes documentales. *La taiga: un bosque de escarcha y fuego*. 16:45 Ciclismo. Vuelta a Mallorca. Zuzenean, Port D'Alcudiatik Port D'Alcudiana. 17:30 Los Lunnis. *Pato Bill, Los Lunnis eta Misión Odisea*. 19:15 Padres en apuros. 19:30 Pueblo de Dios. *La montaña del agua*. 20:00 Informativo territorial. 20:30 Gala del deporte. Zuzenean, Avilestik. 22:00 La 2. Noticias. 22:30 El tiempo. 21:30 Miradas. 2. 22:35 En portada. *Mall*. 23:30 Extravagario. 00:30 Metropolis. Ali-n Iraizozekin. 01:00 Los conciertos de Radio 3. 01:30 A ciencia cierta.

**Antena 3**



**Kultura orokorra, 'Pasapalabra'-n**

20:15 Silvia Jatok aurkezten duen lehiaketan kultura orokorreko hainbat galdera erantzun behar dituzte, umore giroan.

06:00 Las noticias de la mañana. 09:00 Ruedo ibérico. Montserrat Dominguezek aurkeztutako goizetako saioa. 10:45 Cada día. Maria Teresa Campos esatari ezagunak aurkeztutako saioa. Elkarrizketak, tertuliak eta lehiaketak egiten dituzte. 14:30 Los Simpson. 15:00 Noticias 1. 15:45 Aventura en Africa. Lehiaketa horren eguneko laburpena. 17:00 La vida es rosa. 18:00 Números locos. 19:00 El diario de Patricia. Herritarren testimonio bitxiak osatutako programa. Patricia Gaztañagarekin. 20:15 Pasapalabra. Kultura orokorraren gaineko lehiaketa dibertigarria. Silvia Jatok aurkeztuta. 21:00 Noticias 2. 21:45 El peliulón. *El sexto día*. Fantasiako thriller. Adam hegazkin pilotuak jakingo du korporazio erraldoi batek hil egin gura duela. Protagonistak honako hauek dira: Arnold Schwarzenegger, Michael Rapaport... 00:30 7 días, 7 noches. 02:00 Noticias 3. 02:20 Televant. 05:00 Repeticiones.

**Tele 5**



**Hilketza kontzertuan, 'CSI Miami'-n**

22:00 Areto baten egindako rap musikako kontzertu baten tiro hotzak entzungo dira, eta hainbat lagun hilko dituzte.

06:30 Informativos Telecinco matinal. 09:10 La mirada crítica. Vicente Vallesek. 10:45 El programa de Ana Rosa. Ana Rosa Quintanak aurkeztuta. *La cocina de Karlos Argiñano* ere emango dute: espinaka gainere urdaiazpikoarekin. 14:30 Informativos Telecinco. Hilario Pino eta Carme Chaparronekin. 15:30 Aquí hay tomate. Jorge Javier Vazquez eta Carmen Alcaz derekin. 16:30 Gran hermano VIP. 17:30 A tu lado. Emma Garciarekin. 19:35 Alla tú. Jesus Vazquezekin. 20:30 Informativos Telecinco. Angels Barceló eta Agustín Hernandez. 21:30 Pecado original. 22:00 C.S.I. Miami. *Antecedentes*. 23:00 C.S.I. Las Vegas. *Para siempre*. 00:00 Crónicas marcianas. 02:20 Informativos Telecinco. 02:45 Madrugada de cine. *La ira (Carrie 2)*. Komedio. 04:25 Infocomerciales.

**Astean GOITBn**

Astelehena, 7



'Aratustean 05' | 21:30

**Aretxabaletako Aratusteen erreportajea**

Ohikoa den moduan, GOITB-ko lan-taldea Aretxabaletara joan zen domekan. Mikel Aranburu eta Oihan Vega aurkezleek jai horren gaineko erreportaje dibertigarria egin dute.

Martitzena, 8



'Debarri' | 21:00

**Elgetako alkate Patxi Basauri elkarrizketa**

Astean Elgetak izango du hitzordua *Debarri* saioan. Alberto Gorritiberearen gidaritzapean, Elgetako hainbat gai izango ditu berba Patxi Basauri alkateak.

Eguaztena, 9



'Danbaka' | 21:30

**Split 77, Danbakako talde gonbidatua**

Danbakako finalean gonbidatu moduan esku hartu zuen Split 77 taldearen kontzertua emango dute. Deustuarrek emanaldi dotorea eman zuten Elgetako Espaloian.

Eguena, 10



'Behazulo' | 22:30

**Elkarrizketa mamitsuak eta erreportajeak**

Goiatz Arana kazetariak gaurkotar handia duten elkarrizketa mamitsuak eta erreportajeak egiten ditu. Horrez gain, astebururako eguraldi iragarpena eta efemerideak.

Egubakoitza, 11



'Lazkao Txiki' | 14:10

**Lazkao Txiki bertsolariaren abenturak**

GOITB-k astean estreinatuko ditu Lazkao Txiki bertsolari ezagunaren gaineko marrazki bizidunak. Horrek eta *Pernando Amezketarra*-k lekuko hartu diete *Kalimero*-ri.



Otsailaren 7a: 030 zozketa

## Harpidedunen txokoa

# Zorionak irabazleoi!

Gaur, otsailak 7, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!  
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

### BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Eskaintza:

**Harpidetza kuota, 35 euro**

2005 osoko harpidetza kuota: 35 euro.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek izan dira aurreko egubakoitzean argitaratu genituen sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan bada, **ZORIONAK!**

KIKE AMONARRIZEN "888 TXISTE" liburua, Argia-ren eskutik.  
• Arantza Fdz. de Ganboa Landa (Arrasate)

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzari bina emango zaizkio).

- Ekin fisioterapia zentrua (Aretxabaleta)
- Rosario Yarza Madariaga (Antzuola)

2005eko ARGIA-ren 6 egutegi

- Mari Tere Jausoro Lazkano (Oñati)
- Leire Zelaia (Oñati)
- Jose Martin Elizaran Egidazu (Arrasate)
- Juan Pedro Eguren Larrañaga (Bergara)
- Amaia Zabaleta Irazabalbeitia (Bergara)
- Andoni Zubia (Eskoriatza)

### Otsailaren 14ko sariak


- Otsailaren 18an Markeliñe taldearen DECAMERON antzerkirako lau gonbidapen. Saridun bakoitzari bi. Elgetako Espaloia antzokian.

- Otsailaren 19an Elgetako Espaloia antzokianegingo den KORRIKA MUSIKALA kontzerturako bi gonbidapen.

- MOKOGORRI, 6 urtetik gorakoendako bi puzzle (saridun bakoitzarendako bat).



Eibar-Ejido futbol partidua ikusteko lau sarrera; saridun bakoitzari bi emango zaizkio.







## Hamarrekoa

ALBERTO ELORTZA | ZELAI-ZABAL JATETXEKO SUKALDARIA

### "Ezkontzak bezala, banantzeak ere ospatu egin beharko lirateke"

Maria Agirre

**1. Aratusteak dira, eta gaur beharbada Tolosara joango zara.** Beharbada bai. Urtetan joan naiz Tolosara, gehienetan gaurko egunez. Lehen, mozorrotuta joaten nintzen. Behin, amaren kamisoiarekin mozorrotuta azaldu nintzen, eta oso oroitzapen ona dut.

**2. Batzuk sukaldariz mozorrotzen dira.** Gurean janak garrantzi handia du, eta normala da jendea sukaldariz mozorrotzea. Gastronomiari lotuta bizi gara.

**3. Nahiko saltseroa zara. Zeintzuk dira zure osagaiak?** Ez dakit. Jate txera datorren jendearekin berba egitea gustatzen zait. Atetik sartzen direnetik irten arte zaintzen ditugu bezeroak.

**4. Emaztea ere sukaldaria. Askotan haserretzen zarete sukaldean?** Bai, sarri haserretzen gara, baina egunero batera egonda eta lana elkarrekin eginda... normala da.

**5. Askok egiten du ezkontza bazkaria zurean. Ezkontzearen aldekoa zara?**

Nire ustez garrantzitsua da ezkondu aurretik bikotekidea ondo ezagutu, eta elkarrekin bizi izatea. Horren ondoren ezkondu edo ez, berdin da. Baina ezkontzak ospatu behar diren moduan, banantzeak ere ospatu egin beharko lirateke. Askok askatasuna berreskuratzen dute banandu ondoren.

**6. Abadea ere gonbidatu behar da ezkontza bazkarira?** Gaur egun ohitura hori galdu egin da. Lehen, baina, gidaria, apaiza eta argazkilaria ere gonbidatzen zituzten. Behin, argazkilaria batek gehiegitxo edan, eta gerriatik behera atera zituen argazki gehienak. Galanta izan zen!

**7. Zer moduz jaten da zopa bibotearekin?** Oso ondo. Era horretan bi aldiz dastatzen ditut janariak. (Barre)

**8. Euskal Herriko sukaldari ezagunenak lagun dituzu. Zeintzuk?** Euskal sukaldaritzan lagun asko dut. Martin Berasategi, esaterako, txiki-txikitatik ezagutzen dut, aitarekin Arantzazura etortzen zenetik. Hilario Arbelaitz, berriz, oso estimatua dut. Nire bigarren aita da.



AITOR LIZARRALDE

Oporretan harrapatu dugu Alberto Elortza sukaldaria. Garai aproposa sukaldari batekin berba egiteko, gehienetan lanez gainezka izaten baitira. Oñatiko Zelai-Zabal jatetxeiko sukaldaria da Alberto, baina ez da bakarrik aritzen sukaldean: Susana emaztea eta Mariatxo arreba lagun izaten ditu. Sukaldean pozik aritzeaz gainera, zaldiak ere oso gustuko ditu Albertok.

**9. Sukaldaria izanik, zein plater duzun gustukoena galdetu behar!** Foie dut oso gustuko. Hori eta ardo on bat izanez gero, primeran. Gainera, guk etxean egiten dugu foie, eta hori jatetxe gutxiak egiten du.

**10. Berria egunkarian laster argitaratuko dituzu errezetak. Zeintzuk?** Foie izango da horietako bat, Zelai-Zabaleko plater tipikoa. Nire lau errezeta argitaratuko dituzte Berria-n.



### Biharamuna

Eñaut Arriaran

### Etxera

Argi nuen, zapatu goizetik, Ageda gure martiria ekarriko nuela gogora zutabe honetan. Argi nuen Gesalibarko jaiak kontatuko nizekizuela, eta egubakoitzetik Monikari, Goienkari gure kontaktuari, hala agindu nion. Hala ere, Santa Ageda egunean, zapatuan, beste norbait ere ekarri behar izan genuen gogora. 19:00ak aldera, Arrasateko herriko plaza jendez bete zen. Batzuetan izaten dira irudi ahaztezinak, zer pentsatua ematen dutenak, eta halakoa izan zen Ion Agirrearen aldeko manifestazioa.

Buruan geratu zaidan irudia umeentzako karro bat da. Umeentzako karro horren ondoan beste bi edo hiru, edo hamaika karro eta beste horrenbeste guraso. Guraso horien artean sendagileak eta erizainak ikusi nituen. Erizainekin batera tabernari pilo bat eta irakasleren bat edo beste. Irakasleengandik urruti ikasleak ehunka eta haien ondoan kooperatibako langile mordoak. Santa Agedako koro bat ere han zen baserriar jantziarekin eta soinua bizkarrari lotuta. Senideak asko zeuden eta sufrimenduan oso bilduak eta haien ondoran talde politiko askotako ordezkariak, guztiak bildurik.

Isilik eman genuen buelta bat, Benito eta Laboaren musikak lagunduta Santa Agedari nola eta zergatik moztu zizkieten bularrak burutik kendu ezinik. Ion zergatik, nola eta non duten kartzelan uxatu ezinka. Guztiok izan ginen isilik eta pentsakor garra-si bakar bat botatzeko: Ion eta besteak etxera orain!

ARATUSTEAK 2005 GOITB-N

## Nor zara zu?

Eguaztenean, otsailaren 7an, 21:30ean eta 23:00etan



Ikustekoa!

